



V. ATALA
INGURUNEAREN BIZITZA KALITATEA



13.SARRERA: BIZITZA KALITATEARI DAGOZKION ADIERAZLEAK

V. ATALA. INGURUNEAREN BIZITZA KALITATEA

12. SARRERA: BIZITZA KALITATEARI DAGOZKION ADIERAZLEAK

Bizitza kalitate maila altu bat duen hiria da Donostia-San Sebastián. Berez, bizitza kalitatea, dimentsio asko bereganatzen dituen kontzeptua da, giza ikuspegi batetik errenta maila, enplegua, ekipamenduak, kirol, osasun edota hezkuntza zerbitzuak edota urbanismoa bezalako kontzeptuak aztertzen dituelarik.

Adierazle sorta handi bat egin du Cities Proiektuak E.A.E.-ko hiru hiriburuentzat, gehiengoak subjektiboak direlarik eta gai desberdinak ikutzen dituztelarik. Baloreak 1 eta 10 tartean egon daitezke eta esperientzia handiko profesionalak emandako puntuaketen bidez lortu dira hiriburu bakoitzean.

Bizitza kalitatea ilustratzeko erabili diren adierazle gehienak Cities Proiektuan erreferentzia basikoak deiturikoei dagozkie, eta hauen barruan hiriaren estrukturka fisiko eta funtzionalei dagozkienak. 5 ataletan banatu da: hiri esparrua, garraio eta etxebizitza, ekipamenduak, iharduera ekonomikoen garapenerako ekipamenduak, ingurunearen kudeaketa eta gizarte kohesioa. Azken atal hau Udaletxe eta Foru Aldundiko Giza Ongizatearen departamentutik ekarritako datuekin betetzen da.

13.1. HIRI ESPARRUA

Atal honetan sarturiko 23 arazotatik 13tan, Donostiak ditu hiru euskal hirietatik balore altuenak; bera da 7a gehienetan gainditu duena, gutxienekoa, beti, 5aren gainera izanik. Guztien artean, hiriaren berezitasuna eta erakargarritasuna, eta bere elementu naturalen izaera paregabea nabarmentzen dira, 8,5ekin eta 8,4rekin.

**13.1. Koadroa Bizitza kalitatearekin loturiko adierazleak:
Egitura fisikoa eta funtzionala. Lurralde. 2001eko
balioespena**

1etik 10erako puntuazioa

	Bilbo	Donostia	Gazteiz
Egitura fisikoa eta funtzionala: lurraldea			
Hiria kokatzen den lurraldea	5,3	7,4	5,9
Ubideen eta ur-xaflen balioespena	4,8	6,9	4,5
Kanpoaldearekin harremanak izateko azpiegitura	6,6	5,6	4,9
Telefono kopurua 1.000 biztanleko	422,5	454,1	450,4
Interneterako konexioen kopurua 1.000 biztanleko	94,9	108,3	66,7
Aireportuak: urteko bidaiariak biztanleko	2,53	0,61	0,58
Kanpoaldearekin lotzen duten hiriko trenak	4,8	6,1	4,7
Komertzio-portuak	7,4	4,6	3,3
Hiriaren egitura	5,7	6,9	7,0
Erdiguneak	6,7	7,9	7,3
Hiri-inguruko garapena	5,1	5,5	6,6
Hiri-agertokia	5,7	7,4	6,6
Hiri-irudiaren berezitasuna eta erakargarritasuna	6,1	8,5	7,1
Tradiziozko arkitekturaren kalitatea	6,5	7,8	6,5
Ura hirian	5,1	7,7	6,1
Berdegunek hirian	4,3	7,0	7,9
Hiriaren egituraren zati bereziak	4,8	6,3	5,9
Eremu historikoak	6,3	6,5	7,5
Industrialdeak	5,0	5,4	6,7
Hiriko parkeetako sistema	4,1	6,1	7,4
Igarobide ekologikoak	2,9	5,6	6,3
Natur elementu aipagarriak	3,5	8,3	4,9
Luxuzko egoitza-areak	5,3	7,0	6,1

Iturria: Proyecto Cities

Kanpoaldearekin lotura egiten duten azpiegiturak (batez ere aireportuetan biztanleko bidaiari gutxiago izaten delako) eta bere komertzio-portuaren balioespena dira hain positiboak ez diren alderdiak. Bi alderdi horietan, Bilbo Gipuzkoako hiriburuaren gainetik ageri da. Interneteko konexioen kopurua, ordea, Donostian altuagoa dela nabarmendu behar da: 108, 1.000 biztanleko.

13.2. GARRAIOA ETA ETXEBIZITZA

Garraioari dagozkion bost alderditatik hirutan, Donostiak lortu du puntuaziorik altuena, nahiz eta hiri-esparruari zegokion aurreko atalean lorturikoak baino emaitza kaskarragoak izan. Autobusei, hiriko trafikoari, eta geralekuei dagokio berau.

Etxebizitzetara dagokienez, berriz, proportzioan etxebizitzetan beren jabeak gutxien bizi diren hiria da, eta etxebizitzetara sartzeko ahalbidea ere gutxienekoa da; horregatik, ez da harritzekoa luxuzko etxebizitzetarako aukera gehien dituen euskal hiria izatea.

13.2. Koadroa **Bitza kalitatearekin loturiko adierazleak:**

egitura fisikoa eta funtzionala. Hiriko garraioa eta etxebizitza. 2001eko balioespena

1etik 10erako puntuazioa

	Bilbo	Donostia	Gasteiz
Egitura fisikoa eta funtzionala: hiriko garraioa eta etxebizitza			
Hiriko garraioa	5,3	5,3	3,8
Autobusak	6,5	6,8	5,7
Hiriko trafikoa	3,5	5,8	4,2
Aparkalekuak	3,6	5,5	3,8
Metroa eta aldiriko trenak	8,3	6,2	3,1
Garraio publikoan egindako bidaiak	40	19,8	28
Etxebizitza			
Luxuzko etxebizitza aukerak	6,1	7,3	5,3
Jabea bertan bizi den etxebizitzak	87,7	84,1	88,4
Etxebizitzan sartzeko ahalmena	96,8	79,6	100,0

Iturria: Proyecto Cities

13.3. EKIPAMENDUAK

Gizarte-zerbitzuen prestaziora bideratutako eraikuntzei dagozkien ekipamenduek, politika publikoa abian jartzeko ezinbesteko baldintza osatzeaz gain, interbentzio honen denbora-tarterako egonkortasuna eta jarraipena ere bermatzen dute.

Kultur, kirol, irakaskuntza, gizarte, eta osasun arloak, besteak beste, zail lirateke beren osotasunean ulertzen, arlo horietako jarduerak eta egitarauak bultzatzen dituzten ekipamenduak kontuan hartuko ez balira. Horregatik, Proyecto Cities-ek kontuan hartu du arlo hauetan dauden ekipamenduen eta egitarauen balioespena ere.

Donostia da posturik onena duen euskal hiria, kontuan hartu diren 19 auzi horietatik 11tan. Baliorik handiena Jatetxeei dagokie (8,3), eta baxuena graduondoko eta ikerkuntzako programei (5,4); azken honetan Bilbok du puntuaziorik altuena (5,9). Osasunean, osasun publikoan eskaintzen den arretak puntuazio oso altua lortu du hiru hiriburuetan, eta Donostiaren kasuan, pribatuan ere gauza bera gertatzen da.

Komertzioa eta komertzioz beteriko kaleak dira hiriaren beste indargunea. Kirol instalazio publikoetan, ordea, Gasteizek aurre hartzen dio. Bilbon, baliorik altuena museoetako eta arte galerietako eskaintzak lortzen du (8,3).

13.3. Koadroa **Bitza kalitateari dagozkion adierazleak:** **Ekipamenduak. 2001eko balioespena**

1etik 10erako puntuazioa

	Bilbao	Donostia	Vitoria
Egitura fisikoa eta funtzionala: ekipamenduak			
Hezkuntza sistema eta unibertsitateak	5,6	6,1	5,9
Ikasle kopurua 1.000 biztanleko	59,8	66,1	41,0
Graduondo eta ikerkuntza programak	5,9	5,4	5,1
Oinarrizko hezkuntza programen kalitatea	5,5	6,8	5,8
Hezkuntza profesionalaren kalitatea	5,7	6,6	6,9
Osasun ekipamendua			
Osasun publikoan eskainitako arreta	7,5	7,8	8,0
Osasun pribatuan eskainitako arreta	6,5	7,6	6,0
Hirugarren adinekoei eskainitako arreta	4,5	6,3	6,7
Kultur ekipamendua eta adierazpenak	7,2	7,1	5,4
Kongresu-jauregia eta auditorioa	7,5	8,3	5,2
Artea, eskulangintza eta tradiziozko festak	6,5	6,9	5,5
Museoak eta arte galeriak	8,3	5,6	5,2
Komertzio Ekipamendua	6,2	6,1	3,9
Komertzio eskaintza erakargarria	7,0	7,6	5,9
Komertzio kaleak	6,8	7,4	5,8
Kirolerako eta aisialdirako ekipamendua	4,7	6,7	5,8
Kirol instalazio publikoak	4,6	7,2	8,1
Jatetxeak	7,3	9,5	7,1
Itsas eta ibai pasealekuak	5,1	8,8	4,5

Iturria: Proyecto Cities

13.4. EKONOMI JARDUEREN GARAPENERAKO EKIPAMENDUA

Ekonomi jardueren garapenerako dagoen ekipamenduari dagokionez, hiriaren baldintzak azaltzeko erabilitako bost adierazleetatik bitan, Donostiak du puntuaziorik altuena. Hiri turistikoa izateari zor dizkio biak: oro har duen hotel eskaintza, eta bost izarretako hotelen eskaintza.

Banaketa eta logistika zentroi dagokienez, ordea, eta batez ere industri eraikinen batez besteko alokairuaren kostuan, baldintzak ez dira hain onak. Prezioak Gasteizen eta Bilbon baino %135 eta %74 garestiagoak dira, hurrenez hurren.

Cuadro 13.4. Bizitza kalitateari dagozkion adierazleak: 2001eko balioespena

1etik 10erako puntuazioa

	Bilbo	Donostia	Gazteiz
Egitura fisikoa eta funtzionala: ekonomi jardueretarako ekipamendua	6,3	5,4	4,9
Banaketa eta logistika zentroak	6,0	5,0	6,5
Industri eraikinetako alokairuaren batez besteko kostua US\$/m2 eta hilabetea	3,1	5,4	2,3
Oheak 10.000 biztanleko .	44,8	103,0	66,0
Hoteleko oheak 5 izarretako hoteletan	3,9	6,6	
Lana			
Lana sortzeko hiriaren gaitasuna	5,5	5,8	6,6
Lanpostuen kalitatea eta ordainketa-malla	6,5	6,6	6,9

Iturria: Proyecto Cities

13.5. INGURUNEAREN KUDEAKETA

Donostiak aurre hartzen du hiriaren garbitasunaren adierazleetan eta airearen kalitate eta garbitasunean; puntuazio altu horrek hiriaren kalitatea sendotzen du.

Pertsonako hondakin solidorik gehien sortzen duen hiria da, ordea; Gasteizen baino %57 eta Bilbon baino %24 gehiago.

13.5. Koadroa Bizitza kalitateari dagozkion adierazleak: Ingurunearen kudeaketa. 2001eko balioespena

1etik a 10erako puntuazioa

	Bilbo	Donostia	Gazteiz
Egitura fisikoa eta funtzionala: ingurunearen kudeaketa			
Alderdi orokorrak	5,3	7,1	7,1
Hiriaren garbitasuna	5,3	7,7	7,4
Airearen kalitatea eta garbitasuna	5,5	7,4	6,8
Teknologia garbien erabilera	4,6	6,2	6,5
Hondakin solidoak pertsonako Tm/urtea	0,4	0,5	0,3
Biodibertsitate elementuak	4,3	5,8	6,4

Iturria: Proyecto Cities

13.6. GIZARTE KOHESIOA

Proyecto Cities-ek, era berean, gizarteari erreferentzia egiten dioten beste adierazle batzuk kontuan hartzen ditu; horien artean gizalegeari, gizarte parte-hartzeari eta integrazioari dagozkion batzuk aukeratu dira.

13.6. Koadroa Bizitza kalitateari dagozkion adierazleak: gizalegea, gizarte parte-hartzea eta integrazioa. 2001eko balioespena

	Bilbo	Donostia	Gazteiz
Gizalegea eta gizarteratzea:	5,5	5,9	6,1
Gizarte kohesioa	5,4	5,7	6,5
Pobreziaren eta marjinazioaren aurkako borrokaren arrakasta	4,8	5,6	6,3
Hiritarren onarpena aniztasunari eta tolerantziari dagokionez	5,1	4,5	5,5
Analfabetismo indizea 10.000 biztanleko	95,5	68,4	39,2
Bertako izatea sentimenduaren garrantzia	7,4	7,8	6,5
Hiriko segurtasun maila	6,1	7,8	6,5
Erregistraturiko delitu kopurua 10.000 biztanleko	3.036	1.543	2.804
Desoreka diru-sartze mailan	1/12	1/8	1/10
Hiritar gizarte antolatuaeren garapen maila	4,6	6,1	5,5
Irabazi-asmorik gabeko erakunde kopurua 10.000 biztanleko	71,7	110,5	101,5
Lana eta inmigrazioa			
Inmigranteen kualifikazio profesionala	3,7	4,1	3,9

Iturria: Proyecto Cities

Hiriaren emaitzarik hoberenak bertako izate sentimenduari, segurtasun mailari, eta 10.000 biztanleko erregistraturiko delitu kopuruaren bidez neurtutako hiritarren segurtasun mailari dagozkionak dira; azken hauek Bilbok eta Gasteizek dituztenak baino askoz gutxiago dira.

Atal hau da, ordea, alderdi batzuek eskalaren batez besteko baliora iristea lortzen ez duten, eta beste alderdi batzuek balio hori gaintitu eta hiria beste hiriburuen antzeko egoeran jartzen duten atal bakarra. Lehenengo sailekoak dira, esate baterako aniztasuna eta tolerantzia; bigarren sailekoak, berriz, gizarte kohesioa edota pobreziaren eta marjinazioaren aurkako borrokaren arrakasta.

Marjinazioaren eta pobreziaren arazoari helduz, 2001ean GGDren (gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren) hartzaile kopurua 1.196 pertsona izatera iritsi zen; kopuru hori hiritarren %0,7 da. Kasuen %57 emakumeei dagozkienak dira, eta hauetatik erdiek 45 urte baino gutxiago dituzte. GGDren onuradunak auzo guztietan aurkitzen badira ere, 4 auzotan biltzen dira hartzaile direnen erdia baino pixka bat gehiago (%51,6); goitik beherako ordenan Altza (%17), Intxaurren (%16), Egia (Loiola), (%9,9) eta Martutene (Loiola) (%8,4) dira hauek.

13.7.Koadroa Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarreraren (GGDko) hartzaileak sexuaren eta adinaren arabera Donostian. 2001.

Adina	Emakumeak		Gizonak		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
< 25 urte	3	0,4	2	0,4	5	0,4
25-34	120	16,3	33	7,2	153	12,8
35-44	256	34,8	151	32,8	407	34,0
45-54	165	22,4	125	27,1	290	24,2
55-64	106	14,4	98	21,3	204	17,1
65 eta hortik gorakoak	85	11,6	52	11,3	137	11,5
GUZTIRA	735	100,0	461	100,0	1.196	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Ongizatea).

Adinean erreparatuz, hartzaileetatik %47k 45 urte baino gutxiago du. Gazte onuradunen proportzioa pixka bat handiagoa da Altzan eta Martutenen; Egian eta Intxaurren, berriz, gehitu egiten da 45 urtetik gorakoek presentzia talde honetan.

13.8.Koadroa Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarreraren (GGD) hartzaileak adinaren eta posta-kodearen arabera (eta inguruko auzoak) Donostian. 2001

P.K.	Auzoa	< 45 años		45 eta hortik gorakoak		GUZTIRA	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
20001	Gros	14	2,5	30	4,8	44	3,7
20002	Gros	11	1,9	20	3,2	31	2,6
20003	Alde Zaharra	20	3,5	32	5,1	52	4,3
20004	Erdia	6	1,1	1	0,2	7	0,6
20005	Erdia	5	0,9	11	1,7	16	1,3
20006	Amara Zaharra (eta Erdia)	27	4,8	27	4,3	54	4,5
20007	Mirakontxa	7	1,2	8	1,3	15	1,3
20008	Antiguo - Bentaberri - Lorea eta Igeldo	21	3,7	21	3,3	42	3,5
20009	Aiete (Mirakontxa)	43	7,6	41	6,5	84	7,0
20010	Amara Berri	11	1,9	20	3,2	31	2,6
20011	Amara Berri, Zorroaga	30	5,3	35	5,5	65	5,4
20012	Egia (Loiola)	53	9,4	65	10,3	118	9,9
20013	Ulía (Intxaurren, Egia)	23	4,1	24	3,8	47	3,9
20014	Martutene (Loiola)	54	9,6	47	7,4	101	8,4
20015	Intxaurren	93	16,5	101	16,0	194	16,2
20016	Bidebieta (Herrera)	36	6,4	35	5,5	71	5,9
20017	Alza (Herrera)	103	18,2	101	16,0	204	17,1
20018	Añorga, Ibaeta - Berio - Ondarreta, Zubieta	5	0,9	10	1,6	15	1,3
Ezezaguna		3	0,5	2	0,3	5	0,4
GUZTIRA		565	100,0	631	100,0	1.196	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (Gizarte Ongizatea).

Azkenik, Udaleko gizarte zerbitzuen datuen arabera, 2001ean 5.035 espediente berri ireki dira. Laguntza eta prestazioen 13 tipologia ezberdinetatik, 4 nabarmentzen dira beren garrantzia dela eta. Lehenengo postuan, 1.500 espediente baino pixka bat gehiagorekin (30%), Gizarte Larrialdiko Laguntzak daude; ondoren, Elbarritasun Mailari dagozkion kalifikazio-espedienteak (%15) eta Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerari dagozkionak (%12) ageri dira.

Egian daude espedienteek bide eman dien eskari berrien ia %12; jarraian, Erdialdea-Mirakontxa-Amara Zaharra hirukoa dago. Kasu bietan, Gizarte Larrialdiko Laguntza izan da gehien eskatu den babes-mota. Lehenengo kasuan (Egian), hiru eskaritatik bat horrelakoa izan da; Erdialdea-Mirakontxa- Amara Zaharraren kasuan, berriz, lautatik bat.

13.9. Koadroa Donostiako Udaleko gizarte zerbitzuetan espedienteek bide eman dien eskariak, sexuaren arabera. 2001.

Serbitzu mota	Emakumeak		Gizonak		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Eguneko Zentroa	157	4,6	50	3,1	207	4,1
ELZ. Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua	480	14,0	128	8,0	608	12,1
Telealarma	202	5,9	38	2,4	240	4,8
GGD. Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera	389	11,3	188	11,8	577	11,5
GLL. Gizarte Larrialdietarako Laguntza	1.045	30,4	481	30,1	1.526	30,3
EDL. Elbarrituentzako Diru-laguntza	68	2,0	69	4,3	137	2,7
EK. Elbarritasun Mailari dagokion Kalifikazioa	401	11,7	359	22,5	760	15,1
GOF. Gizarte Ongizate Fondoa	7	0,2	6	0,4	13	0,3
GDL. Gaztetxoentzako Diru-laguntzak	0	0,0	4	0,3	4	0,1
3AF. 3. adinekoak dituzten Familiak	8	0,2	2	0,1	10	0,2
KEP. Kotizaziopekoa ez den pentsioa	65	1,9	46	2,9	111	2,2
Egtz. Egoitza	342	9,9	135	8,5	477	9,5
AEE. Aldi baterako Egonaldia Egoitzan	274	8,0	91	5,7	365	7,2
Guztira	3.438	100,0	1.597	100,0	5.035	100,0

Iturria: Donostiako Udala (Gizarte Ongizatea).



PLAN ESTRATEGIKOA
Donostia-San Sebastián

13.10. Koadroa Donostiako Udaleko gizarte zerbitzuetan espedientei bide eman dien eskariak, auzoen arabera. 2001.

AUZOA	EZ	ELZ	Tel	GG D	GLL	EDL	EK	GO F	GDL	3A F	KEP	Egtz	AEE	Beste lakoak	GUZTIRA	
															Zb.	%
Ipar Intxaurreondo	13	26	11	36	131	5	51	0	5	0	7	21	12	0	318	6,3
Buenavista - Molinao	8	32	7	27	104	9	46	0	2	1	10	14	16	1	277	5,5
Amara Berria	13	34	29	36	80	13	67	2	0	3	13	34	24	3	351	7,0
Antiguo	14	49	26	46	77	10	54	0	1	0	7	38	29	1	352	7,0
Gros-Ulia	21	79	40	36	9	11	64	2	0		4	74	45	2	387	7,7
Loiola-Martutene-Osinaga	12	38	12	37	103	5	52	1	1	1	9	3	16	3	293	5,8
Alde zaharra	9	34	11	34	78	7	3	0	0	2	5	25	16	1	225	4,5
Larratxo-Alza	15	28	3	20	92	14	34	0	2	1	10	19	20	2	260	5,2
Bidebieta-Ulia	10	39	9	51	106	6	49	0	5	0	10	14	11	2	312	6,2
Egia	24	58	24	77	187	12	72	1	1	0	8	76	39	2	581	11,6
Erdialdea-Mirakontxa-Amara Zaharra	24	76	36	53	127	11	43	5	1	1	8	48	42	6	481	9,6
Igeldo-Ibaeta-Igara-Añorga-Zubieta-Aiete	10	21	11	31	66	11	40	1	1	0	7	22	22	4	247	4,9
Gros-Sagües	9	22	12	26	92	6	44	0	2	1	6	22	23	1	266	5,3
Amara-Morlans	17	56	14	29	63	10	35	1	0	0	2	30	29	5	291	5,8
Herrera	6	14	2	24	96	4	32	0	1	0	1	14	14	0	208	4,1
Hego Intxaurreondo -Jai alai	5	13	1	25	60	3	35	0	4	0	6	6	8	2	168	3,3
GUZTIRA	210	619	248	588	1.471	137	721	13	26	10	113	460	366	35	5.017	100,0

Iturria: Donostiako Udala (Gizarte Ongizatea)

13.11.Koadroa Bizitza kalitateari dagozkion adierazleak: Zerbitzu aurreratuak. 2001eko balioespena

	Bilbo	Donostia	Gazteiz
Aurreratutako ekintza eta zerbitzuak:			
Gizarte zerbitzuak	6,2	6,5	7,4

Iturria: Proyecto Cities



14. ETXEBIZITZA



14. ETXEBIZITZA

14.1. DAUDEN ETXEBIZITZAK ETA PROIEKTUAN DAUDENAK

Donostiako urbanizazio planeamenduan jasotako bizilekuen garapenaren arabera, 2001.eko martxoan 68.655 etxebizitza daude botako ez direnak: % 15,8 Amara Berri kokatuak daude, %15,5 Erdialdean, %13,1 Grosen eta %10,9 Altzan. Lau auzo horiek biltzen dituzte hiriko etxebizitzaren % 55,3.

14.1. Taula

Donostiako urbanizazio planeamenduko bizilekuen garapenean aurreikusitako etxebizitza kopurua (botako ez direnak eta proiektuan daudenak), 2001.eko martxoa *

AUZOA	Botako ez direnak		Proiektuan daudenak						Guztira		%Proiek/ botako ez direnak
			Babes ofizialeko etxeak		Etxebizitza libreak		Guztira				
	Nº	%	Nº	%	Nº	%	Nº	%	Nº	%	
Altza.....	7.471	10,9	2.016	26,7	1.530	14,1	3.546	19,3	11.017	12,7	47,5
Amara Berri.....	10.815	15,8	1.436	19,0	1.083	10,0	2.519	13,7	13.334	15,3	23,3
Añorga.....	754	1,1	42	0,6	287	2,6	329	1,8	1.083	1,2	43,6
Antiguo-Ondarreta	4.800	7,0	658	8,7	1.574	14,5	2.232	12,1	7.032	8,1	46,5
Ategorrieta-Ulia....	1.206	1,8		0,0	165	1,5	165	0,9	1.371	1,6	13,7
Aiete	3.823	5,6	708	9,4	1.553	14,3	2.261	12,3	6.084	7,0	59,1
Erdialdea.....	10.628	15,5		0,0	939	8,6	939	5,1	11.567	13,3	8,8
Egia.....	5.973	8,7	435	5,8	445	4,1	880	4,8	6.853	7,9	14,7
Gros.....	9.007	13,1		0,0	405	3,7	405	2,2	9.412	10,8	4,5
Ibaeta.....	2.354	3,4	542	7,2	935	8,6	1.477	8,0	3.831	4,4	62,7
Igeldo.....	338	0,5	48	0,6	88	0,8	136	0,7	474	0,5	40,2
Intxaurrondo	5.470	8,0	916	12,1	190	1,7	1.106	6,0	6.576	7,6	20,2
Loiola-Martutene ..	2.450	3,6	564	7,5	816	7,5	1.380	7,5	3.830	4,4	56,3
Mirakruz-Bidebieta	3.436	5,0	134	1,8	316	2,9	450	2,4	3.886	4,5	13,1
Miramón-Zorroaga	106	0,2		0,0	512	4,7	512	2,8	618	0,7	483,0
Zubieta.....	24	0,0	44	0,6	22	0,2	66	0,4	90	0,1	275,0
Guztira.....	68.655	100,0	7.543	100,0	10.860	100,0	18.403	100,0	87.058	100,0	26,8

* 1995eko Plan orokorreko aurreikuspenak daude sartuta, ondorengo planeamenduko aldaketa eta zehaztapenen bidez eguneratua.

Donostiako Udalaren Hiri-Planeamendu eta Etxebizitza Zuzendaritzaren datuak.

Donostiako etxebizitza hornidura (mila biztanleko dagoen etxebizitza kopurua), Gipuzkoa mailako batezbestekoa baino altuagoa da (baita Donostialdea eskualdearekin alderatuz gero ere). Zehazki, 1996. urteko datuen arabera, Donostian 417 etxebizitza zeuden mila biztanleko. Kopuru hau, Gipuzkoako batezbestekoa baino %6,1 handiagoa da. Ikus daiteke, halaber, 1991-1996 aldian hornidura horren hazkundea (%8,3) probintziakoa baino handixeagoa izan dela (%8).



14.2. Taula **Etxebizitza kopurua mila biztanleko, 1991-1996.**

Eremua	1991	1996	% 96-91
Bidasoa Beherean.....	420	453	7,9
Donostia.....	385	417	8,3
Oarsoalde.....	341	369	8,2
Donostialdea.....	320	354	10,6
Gipuzkoa.....	364	393	8,0

Biztanleen erroldatik jasoa.

2001.eko martxoa bitarteko planeamenduan aurreikusitako garapenari dagokionez, badira lur urbanizagarri zabalak, etxebizitza kopuru handia egiteko proiektua dutenak. 18.403 etxebizitza eraikitzeke egitasmoa dago (hauetatik %41 babes ofizialekoak dira); honela, % 26,8 igoko da etxebizitzen kopurua. Etxebizitza horien auzokako banaketa dela eta, etxebizitza pilaketa emango da Altza (%19,3), Amara Berri (%13,7) eta Antigua-Ondarreta (%12,1) auzoetan.

14.3. Taula **Lizentzia-emakiden araberako etxebizitza berri kopurua, 1995-2000 aldia.**

Urtea	Babes publikoa	Sustapen librea	Guztira
1995	711	850	1.561
1996	210	469	679
1997	309	852	1.161
1998	335	296	631
1999	--	351	351
2000	420	545	965
Guztira 95-00	1.985	3.363	5.348
%	37,1	62,9	100,0

Donostiako Udalaren Hiri-Planeamendu eta Etxebizitza Zuzendaritzaren datuak.

Testuinguru horretan, etxebizitza berrien eraikuntzarako eman diren baimen berriak aztertuta, 5.348 etxebizitza berriren egitasmoa dago 1995ean Plan Orokorra onartu zenetik. Horietatik %37,1 babes publikokoak dira (1.985 etxebizitza) eta %62,9 sustapen librekoak (3.363 etxebizitza).

Honela, 2001.eko urtarrilaren 1era arte, egiteke dagoen etxebizitza kopurua 11.280koa da, kopuru osoaren %61,3. Ondoko taulan agertzen dira egitasmoen exekuzio-maila, auzoka banatua. Kontuan hartzekoa da Egiako exekuzio-maila altua (aurreikusitako etxebizitza gehienak eraiki dira jada bertan) eta Antigua-



PLAN ESTRATEGIKOA
Donostia-San Sebastián

Ondarretakoa ere; baita, neurri apalagoan bada ere, Aiete, Intxaurrondo eta Gros auzoak ere. Gainerako auzoetan egiteke dauden etxebizitzak aurreikusita daudenen %50 baino gehiago dira (aipagarriak dira Altza, Amara Berri eta Loiola-Martuteneko kasuak).

14.4. Koadroa **Planeamenduan aurreikusitako etxebizitzaren egitasmoa, 2001.eko urtarrilaren 1era arte**

Auzoa	Aurreikusitako etxebizitzak. 2001eko martxoan		
	Guztira	2001-01-1 bitartean gauzatze bidean	% gauzatze bidean/ Guztira
Altza	3.546	3.454	97,4
Amara Berri.....	2.519	2.237	88,8
Añorga	329	289	87,8
Antiguo-Ondarreta...	2.232	288	12,9
Ategorrieta-Ulia	165	85	51,5
Aiete	2.261	692	30,6
Erdialdea	939	769	81,9
Egia	880	9	1,0
Gros.....	405	194	47,9
Ibaeta	1.477	817	55,3
Igeldo.....	136	113	83,1
Intxaurrondo	1.106	368	33,3
Loiola-Martutene	1.380	1.133	82,1
Miracruz-Bidebieta ..	450	426	94,7
Miramón-Zorroaga...	512	340	66,4
Zubieta.....	66	66	100,0
Guztira.....	18.403	11.280	61,3

Planeamenduan aurreikusita zeuden etxebizitzetatik 2001 urteko martxoan exejutatzeko zeudenen kopurua lortzeko, 1995-2000 aldian udal-lizentzia lortu dutenak zein 1995 urteko Plan Orokorren aurreikuspenetan proiektatu bezala sailkatuak izan arren 1993-1994 urteetan lizentzia lortu zutenak kendu dira.

Iturria: Donostiako Udalaren Hiri-Planeamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza.

Donostiako eraikin-dentsitateari dagokionez, etxebizitzatarako lur hektarea bakoitzeko 72 etxebizitza (eraikitakoak eta eraikitzean daudenak) daude. Dentsitate hau zenbait auzotan handiagoa da, esate baterako Grosen (252), Amara Berrin (170) eta Erdialdean (153). Beste batzuetan aldiz, txikiagoa da, hala nola Miramon-Zorroagan (8), Zubieta n(16), Añorgan (817), Igeldon (18), Ategorrieta-Ulian (22) eta Aieten (31).

Inguruarekin alderatuz gero, ikusten da Donostiako eraikin-dentsitatea EAE mailakoa (60) baino altuagoa dela eta, baita Gipuzkoakoa (70) baino altuagoa



PLAN ESTRATEGIKOA
Donostia-San Sebastián

ere. Gasteizko eraikin-dentsitatea (80) baino handiagoa ere bada. Aldiz, Bilboko (133) baino zertxobait baxuagoa da.


14.5. Koadroa. Eraikin-dentsitatea Donostian. Bizitegi-eremu hektarea bakoitzeko etxebizitza kopurua (2001.eko martxoa)

AUZOA	Eraikitakoak	Proiektuan daudenak	Guztira
Altza.....	56	26	82
Amara Berri.....	138	32	170
Añorga.....	12	5	17
Antiguo-Ondarreta....	53	24	77
Ategorrieta-Ulia.....	19	3	22
Aiete	20	12	31
Erdialdea.....	141	12	153
Egia.....	96	14	110
Gros.....	241	11	252
Ibaeta.....	25	15	40
Igeldo.....	13	5	18
Intxaurrondo	53	11	63
Loiola-Martutene	48	27	76
Miracruz-Bidebieta....	66	9	74
Miramón-Zorroaga....	1	7	8
Zubieta	4	12	16
Guztira Donostian.....	57	15	72
Bilbo.....	-	-	133
Gasteiz	-	-	60
Gipuzkoa.....	-	-	70
EAE	-	-	60

Donostiako Udalaren Hiri-Planeamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza. (Donostiako kasurako), eta Eusko Jaurlaritza-Udapan 99 8beste eremuetarako)



14.1. Grafikoa Bizitegi alde orokorrean hektare bakoitzeko etxebizitza kopurua



Iturria: Donostiako Udalaren Hiri-Planeamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza.
etxebizitza-eskaintzaren egoera: salneurri mailak

14.2. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN EGOERA: PREZIO MAILAK

Eusko Jaurlaritza azken urteotan egiten ari den higiezinaren eskaintzari buruzko azterketen arabera, EAEko altuenak dira Donostian etxebizitzaren salneurriak. Donostia, horrenbestez, Euskal Herriko eta beste bi hiriburuetakoa batezbestekoaren gainetik dago alor horretan.



PLAN ESTRATEGIKOA
Donostia-San Sebastián


14.6. Koadroa. Etxebizitza berrien eta erabilien salneurria m² erabilgarriko (eurotan). Donostia eta EAEko datuak, 1999-2000

	BERRI LIBREAK					ERABILIAK				
	1997	1998	1999	2000	2001	1997	1998	1999	2000	2001
Araba	1.635	2.086	1.515	1.770	2.096	1.713	1.935	2.362	2.640	2.712
Gipuzkoa	1.527	1.418	1.599	2.045	2.376	1.695	1.797	2.230	2.822	2.832
Bizkaia	1.418	1.466	1.551	1.707	2.140	1.238	1.244	1.593	1.968	2.123
EAE	1.478	1.491	1.569	1.839	2.220	1.406	1.454	1.881	2.339	2.408
Gasteiz	1.755	2.398	2.031	1.875	2.277	1.731	1.953	2.386	2.660	2.751
Donostia	2.086	2.326	2.302	3.086	3.036	2.067	2.194	2.903	3.411	3.526
Bilbo	1.569	1.545	1.773	1.660	2.186	1.280	1.352	1.629	2.039	2.319
Guztira hiriburutan	1.755	1.845	1.845	2.006	2.473	1.605	1.737	2.134	2.584	2.683

Etxebizitza eskaintza Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta etxebizitza departamendua. Eusko Jaurlaritza

Ikusten denez, 2000. urtean, Donostian daude salneurrik altuenak bai etxebizitza berri libreetan baita erabilietan ere; lehenak 3.089 euros/m² eta bigarrenak 3.414 euros/m², hain zuzen ere. Etxebizitza berri librearen kasuan, salneurria EAEkoa baino % 68 altuagoa da, eta erabilitakoetan, berriz, %46koa.


14.2. Grafikoa Salgai dauden etxebizitza berri libreen salneurria m²ko, geografi-eremuka 2000. urtea.





14.7. Grafikoa


Etxebizitza libre berrien eta erabilien salneurriaren bilakaera m² erabilgarriko (eurotan). Donostia (1997-2001).



Bilakaerari begiratuz, etxebizitza berri libreen prezioak nabarmen egin zuen gora Donostian 2000 urtean (+%34). Beste bi hiriburuetan, berriz, prezioak 1999. urtean baino baxuagoak izan ziren (-%7,7 Gasteizen eta -%6,4 Bilbon). Salneurrien igotzea zertxobait baxuagoa izan zen erabilitako etxebizitzetan (%17,5), Gasteizen erregistratutakoa baino altuagoa (%11,6), baina Bilboko baxuagoa (%25,1).

14.3. Grafikoa

Erabilitako etxeen m²ko batezbesteko salneurria, geografik-eremutan, 2000. urtea.





Estatuko datuekin alderatuz gero, Sustapen Ministerioaren datuen (1) arabera, tasatuak izan (2) diren etxebizitza libreen metro karratu eraikiaren batezbesteko prezioa (ez dira, beraz, merkatu prezioak), 158.500 pezetakoa izan zen Estatuan 2000 urteko laugarren hiruhilekoan. Iturri horren arabera, Euskal Herrian 250.600koa izan zen balore hori: estatuko batezbestekoa baino %58 gehiago.

14.8. Taula

Autonomia⁽¹⁾ Erkidego desberdinetako etxebizitza libreen salneurria eraikitako m² ko.

Erkidego Autonomia	Pta/m ² eraikia (mila pezetakotan)
EAE	251
Madril	237
Katalunia	206
Balearrak	206
Kanariak	167
Nafarroa	170
Kantabria	156
Gaztela eta Leon	141
Asturias	137
Aragoi	133
Errioxa	136
Galizia	114
Andaluzia	115
Valentzia	114
Gaztela-Mantxa	90
Murtzia	94
Extremadura	80
GUZTIRA.....	159

⁽¹⁾ Etxebizitzaren salneurri-indizea. Aurrekontu eta Ekonomi Programaziorako Zuzendaritza Orokorra.

Beraz, Euskal Herria autonomia erkidego denen aurretik jarri zen berriz ere, bigarren geratu zenaren (Madril, 237.000 pta/ m²) prezioak ere %6 gaituz. Zerrendaren azpen postuan Extremadura dago (80.000 pta/m²). Horrenbestez, EAEko batezbestekoak ere gaituz dituen Donostia etxebizitzaren prezioaren arabera eginiko sailkapenaren buru-buruan jartzen da, Madril eta Bartzelonarekin batera.

¹ Tasazio erakunde nagusiengandik bildu da informazioa. Udalerrri maila gaituz duten eremuen batezbesteko prezioak udalerrriko batez besteko prezioak (eskura dauden datu guztien arteko batezbesteko sinplea) eta izatezko biztanleak haztatuz lortu dira.

² Helburu anitzetarako eginiko tasazioak, batez ere hipoteka-kredituak emateko, salerosketan aholkularitza eskaintzeko, herentzia-banaketarako eta enpresen aktibo finakoak baloratzeko.



Horrenbestez, etxebizitza-merkatuak dituen mugek (prezioa eta eskaintza) erabat baldintzatzen dituzte gazteek hirian jarraitzeko edo bertara etortzeko dituzten aukerak, eta horrek Gipuzkoako hiribuko biztanleen batezbesteko adinaren igoera dakar (adin eta egoera jakin bat duen populazioa da etxebizitza eskuratzeko erraztasun handiagoak dituen). Beharrezkotzat jotzen da, beraz, biztanle gazteei eustea ahalbidetuko duten ekimenak bultzatzea.

14.3. ETXEBIZITZA PREMIAK ETA ESKARIA

® Aldaketa eta sarbide premien indizea

Eusko Jaurlaritzak egindako Etxebizitza Premia eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta EAEn delako lanaren arabera, Donostiako familien %9,1k etxebizitzaz aldatzeko premia dutela aitortzen dute; portzentaje hau Euskal Herrikoa (%5,6), Gasteizkoa (%5), eta Bilbokoa (%6,7) baino dezente altuagoa da. Indize horrek adierazten du Donostian dagoen etxebizitza-hobekuntza premia EAeko batezbestekoa baino handiagoa dela.

14.9.Koadroa Etxebizitza premia subjektiboa eta eskaria Donostian eta EAEn, 2001. urtea.

EREMUA	ALDAKETA BEHARRA				SARRERA PREMIA			
	Indizea (%etxe)	Etxebizitza	Eskaria urtea	% bertikala	Indizea (% etxe)	Etxebizitza	Eskaria urtea	% bertikala
EAE	5,60	38.220	11.447	100,0	10,24	70.952	19.561	100,0
ARABA	4,51	4.148	1.242	10,9	9,01	8.422	2.322	11,9
GIPUZKOA	6,65	14.624	4.380	38,3	10,61	23.533	6.488	33,2
BIZKAIA	5,23	19.448	5.825	50,9	10,33	38.997	10.751	55,0
GUZTIRA HIRIBURUAK	6,84	17.319	5.187	45,3	10,63	27.213	7.503	38,4
Gasteiz	5,07	3.558	1.066	9,3	8,13	5.792	1.597	8,2
Donostia	9,13	5.531	1.657	14,5	11,43	7.034	1.939	9,9
Bilbo	6,73	8.230	2.465	21,5	11,58	14.387	3.966	20,3


Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza eta Gizarte Arazoetako Departamendua, Etxebizitza premia eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta EAEn (2001-III).

Aldaketa beharra dutela dioten familiek (%94) dauden eskaintzak ez zaizkiela ondo egokitzen esaten badute ere, %30k etxe-aldaketa epe motzera (hurrengo urtean) egitea espero dute, jada etxe bila dabilta eta itxaropentsu dira. Etxebizitza aldatzeko premia eta dauden eskariak uztartuz gero, esan genezake badirela 5.500




familia etxebizitza egoki edo hobea batera aldatu nahi dutenak, eta horietatik 1.600ek aldaketa hori hurrengo urtean egitea espero dutela.

14.10. Grafikoa Etxebizitza aldatzeko beharra erakusten duen indizearen bilakaera. Donostia eta EAE. 1997-2001



14.11. Grafikoa Etxebizitza behar dutenen kopurua erakusten duen indizearen bilakaera. Donostia eta EAE. 1997-2001.



Lehendabiziko etxebizitza lortzeari dagokionez, 2001. urtean Donostiako biztanleen % 11,4k nabaritu du premia hori. Portzentaje hau Gipuzkoako (%10,6), EAEko (%10,2), eta Gasteizko (%8,3) batezbestekoa baino altuagoa da, eta Bilboko (%11,5) baino zertxobait baxuagoa.



⁷ Kuantifikazio hori egiteko, Inkestan lortutako adierazleak 1996ko Biztanle eta Etxebizitza Erroldaren arabera etxebizitza nagusi kopuruari aplikatu zaio.

Indize horren arabera, 2001 urtean 7.000tik gora dira Donostian etxebizitza beharra dutenak (%27,5ek etxebizitza hurrengo urtean lortzea espero du). Etxebizitza premia dutenen artean gehienek gurasoen etxetik irten nahi dute, baina ezkontzeko edota bikotekide batekin bizitzeko asmorik gabe (hori dela eta, konparatiboki altuagoa da behar diren etxebizitzaren kopuru garbia ⁹). Merkatuaren ikuspegi negatiboa dute, beren beharretara egokitzen diren etxebizitzetara dagokienez, eta prezioak gorantz doazela pentsatzen dute.

Bilakaerari dagokionez, 1998tik etxebizitza aldatzeko beharrean dauden kopurua igo egin da; azken lau urteotan %55 igo da. 1998an Donostiako etxebizitzaren %4ak aldatzeko beharra adierazi zuen eta 2001ean indizea %9koa izan zen.

Etxebizitza beharrean dagoen lagunen kopurua beti aldaketa beharrean daudenena baino handiagoa izaten da, kopuru hau ere azken hiru urteotan igo egin da (+%27,6)

Testuinguru honetan, azpimarratu behar da, 2002. urtearen Donostian hasieran babestutako etxebizitzaren eskatzaileak 12.273 pertsonara iritsi direla (*Etxebide* bidez eginiko eskariak).

⑧ **Aldaketa premia dutenek eskatutako etxebizitzaren ezaugarriak**

Aurrez aipatutako inkestak dioenez, eskatutako etxebizitzaren batezbesteko neurria 71 m²koa da. Etxebizitzaren tamainak garrantzi handirik ez badu ere, gehienek jabetza erregimenean hartu nahi dute etxea (%62).

⁸ Sarbide-beharren bideragarritasuna bermatzeko, honako baldintza metodologikoa finkatu da: eragindako biztanleek (18-45 urte bitartekoak), diru-sarrera propioak izatea.



PLAN ESTRATEGIKOA

Donostia-San Sebastián

⁹ Bikoteen kasuan (ezkonduak zein ezkondu gabeak), bi pertsona bizi dira etxebizitza bakoitzean.



14.12 Koadroa Eskatutako etxebizitzak. Donostia, 2001

ETXEBIZITZA EZAUGARRIAK	ALDAKETA BEHARRA	SARRERA BEHARRA
Batezbesteko neurria	71,4 m ²	64,0 m ²
Etxebizitza mota:		
▪ Berria	%32,4	%20,4
▪ Erabilia	%2,9	%4,1
▪ Berdin zaio	%64,7	%75,5
Erregimen mota		
▪ Jabetza	%61,8	%71,4
▪ Alokairua	%14,7	%12,2
▪ Berdin zaio	%23,5	%16,3
Etxebizitzaren kokapena		
▪ Auzo berean	%20,6	%12,2
▪ Udalerrri berean	%76,5	%77,6
▪ Eskualde berean	--	%10,2
Udalerriz aldatzeko gogoia		
▪ Bai	%35,3	%68,2
▪ Ez	%58,8	%29,5
▪ Erantzun zehatzik ez	%5,9	%2,3

Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza eta Gizarte Arazoetako Departamentua, Etxebizitza Premia eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta EAEn (2001-III).

Merkatuak eskaintzen dituen etxebizitzak familien egoera eta ezaugarrietara ondo egokituta ez daudela antzeman arren, eta prezioek igotzen jarraitzen dutela ikusten bada ere, etxebizitza eskatzaile gehienek hirian bertan bizitzen jarraitzeko asmoa azaldu dute. Herriz aldatzeko aukera jarri zaienean %35ek bakarrik onartu dute aukera hori.

Etxebizitza bat lortu nahi duten gazteek tamaina txikiagoko etxebizitza nahi dute batezbestekoarekin alderatuz gero (64 m²), baina gazteen artean ere oso errotuta dago (%71) etxebizitzaren jabe izan nahia. Herriz aldatzeko aukera ematen zaienean, %68 prest egongo litzateke. Herriz aldatzeko aukera ematen zaienean, %68 prest dago aldatzeko.

⑧ Birgaitzeko beharra

Etxebizitzak birgaitzeko beharrei eta eskaerei gagozkiolarik, 2001ean Donostiako etxebizitzaren %11,2an bizi ziren hiritarrek beren etxebizitzak berritu edo birgaitu nahi zituztela adierazi zuten, EAEn izandako portzentajearen antzekoa. Birgaitze lanak egiteko aurreikuspena egina dutenen %22k epe laburrean egiteko asmoa du eta jadanik eskatu ditu aurrekontuak.



14.13. Koadroa Behar subjektiboa eta etxebizitza birgaitzeko eskaera Donostian eta EAEan, 2001


	% Etxebizitzen	Etxebizitzak	Eskaera urtebetea	% bertikala
EAE	11,24	76.712	17.053	100,0
ARABA	9,31	8.567	1.904	11,2
GIPUZKOA	12,36	27.020	6.007	35,2
BIZKAIA	11,05	41.126	9.142	53,6
HIRIBURUETAKO GUZTIZKOA	9,32	23.590	5.244	30,8
Vitoria-Gasteiz	7,76	5.442	1.210	7,1
Donostia-SS.....	11,26	6.822	1.517	8,9
Bilbao	9,26	11.326	2.518	14,8

(*)Eskaera datorren urtean.

Iturria: Ikei, Oinarrizko inkesta Etxebizitza Eskaera eta Beharren inguruan EAEn (III-2001).

Kopuru absolutuetan, Donostiako 6.800 etxebizitza berrikuntza beharrean daude eta horietatik 1.500ek segur aski urtebeteko epean berrituko dute beren etxebizitza.

14.14. Grafikoa Birgaitzeko beharrean dauden etxebizitzen indizearen bilakaera. Donostia 1997-2001..





15. UDALEKO LURZORUAREN ERABILERA URBANISTIKOA ETA AURREIKUSITAKO GARAPENA



15. UDALEKO LURZORUAREN ERABILERA URBANISTIKOA ETA AURREIKUSITAKO GARAPENA

Atal honetan Donostiako lurzoruaren erabilera urbanistikoa zein izango den aztertzen da. Hiriaren etorkizuneko hedapena zehazteko, erabilera eta alderdi ezberdinak kontuan hartuta (udaleko ekipamendu ezberdinak planifikatzeko garaian oso elementu garrantzitsuak), aurreikusi diren garapenak ere beren tartea badute. Hain zuzen ere, bizitegi-guneen (etxebizitza berriak egiteko lurra) eta jarduera ekonomikoetarako (industri lurzoria eta tertziarioa) guneen garapena nabarmendu dugu.

2001eko martxoko Hirigintza Planaren arabera, (Plan Orokorraren jatorrizko aurreikuspenak eta ondoren eginiko doikuntza eta aldaketak jasotzen ditu) Donostiak 61.090.114 m²-ko azalera du guztira; horietatik, %65,4 lurzoru ez urbanizagarriak dira eta gainerako %34,4 (21.042.632 m²) hiri-eremuari dagozkio (hiri-lurra gehi lurzoru urbanizagarria). Azken zifra hau %4 (804.967 m²) handitu da 1995ko Plan Orokorraren jasotako zifraren ondoan (orduan guztizkoaren %33,1 zen). Hala, 1995ean biztanleko 114.4 m²-koa bazen hiri-eremu ratioa, 2001eko martxoan 115.3 m²koa izatera iritsi zen. .

Hiri-eremuaren erabilerari dagokionez (2001eko martxoa), %57,4 bizitegiei dagokie, %18,4 jarduera ekonomikoari (%9,5 eremu tertziarioari eta %8,9 industria-eremuari), %12,1 bideei, %6,5 hiri-ekipamenduari eta, azkenik, %5,6 bestelako hornidurari.

15.1. Koadroa Donostiako azalaren erabilera urbanistikoa. 2001eko martxoko Planteamendu urbanistikoa.

ERABILERA URBANISTIKOA	Hiriaren azalera – m²	Guztikoaren %	Azalaren%
Bizitegi gunea	12.085.931	19,8	57,4
Industrialdea.....	1.871.579	3,1	8,9
Eremu tertziarioa.....	1.995.817	3,3	9,5
Komunitatearen ekipamendua	1.363.617	2,2	6,5
Bideetakoak	2.549.866	4,2	12,1
Beste hornidurak	1.175.822	1,9	5,6
Hiri-eremua guztizkoa (hiri-lurra + lurzoru urbanizagarria).....	21.042.632	34,4	100,0
Lurzoru ez urbanizagarria	40.047.482	65,6	-
Guztizkoa udalerrria	61.090.114	100,0	-

Iturria: Donostiako Udaleko Etxebizitza eta Hiri-plangintza Zuzendaritza Industrialdea



PLAN ESTRATEGIKOA
Donostia-San Sebastián

15.2. Koadroa Hiri-plangintzan aurreikusitako bizitegi-garapena (2001eko martxoa) *

AUZOA	BIZITEGI-GUNEEN AZALERA		USTIAPENA						
			Finkatutakoa		Aurreikusitakoa		Gutzizkoa		% Proiek. / eraik.
	m ² (g)	%	m ² (g)	%	m ² (g)	%	m ² (g)	%	
Altza.....	1.345.749	11,1	661.139	8,7	419.782	20,6	1.080.921	11,3	63,5
Amara Berri.....	785.988	6,5	1.112.582	14,7	261.593	12,8	1.374.175	14,3	23,5
Añorga.....	624.321	5,2	87.386	1,2	67.967	3,3	155.353	1,6	77,8
Antiguo-Ondarreta..	913.225	7,6	505.336	6,7	235.502	11,6	740.838	7,7	46,6
Ategorrieta-Ulia.....	635.636	5,3	192.172	2,5	29.239	1,4	221.411	2,3	15,2
Aiete	1.935.343	16,0	558.795	7,4	265.293	13,0	824.088	8,6	47,5
Erdia	755.536	6,3	1.459.550	19,3	63.155	3,1	1.522.705	15,9	4,3
Egia	622.480	5,2	545.901	7,2	80.202	3,9	626.103	6,5	14,7
Gros	373.812	3,1	935.934	12,4	24.258	1,2	960.192	10,0	2,6
Ibaeta	958.934	7,9	281.752	3,7	160.894	7,9	442.646	4,6	57,1
Igeldo.....	263.823	2,2	69.167	0,9	17.902	0,9	87.069	0,9	25,9
Intxaurreondo	1.038.348	8,6	556.047	7,4	126.966	6,2	683.013	7,1	22,8
Loiola-Martutene ...	506.824	4,2	221.611	2,9	135.439	6,6	357.050	3,7	61,1
Miracruz-Bidebieta..	524.476	4,3	347.848	4,6	44.689	2,2	392.537	4,1	12,8
Miramón-Zorroaga..	745.203	6,2	22.321	0,3	97.429	4,8	119.750	1,2	436,5
Zubieta.....	56.233	0,5	5.567	0,1	8.459	0,4	14.026	0,1	151,9
Total	12.085.931	100,0	7.563.108	100,0	2.038.769	100,0	9.601.877	100,0	27,0

* 1995eko Plan Orokorreko jatorrizko aurreikuspenak eta ondoren eginiko doikuntza eta aldakuntzak jasotzen ditu. Iturria: Donostiako Udaleko Etxebizitza eta Hiri-plangintza Zuzendaritza

Hiri-plangintzan aurreikusitako bizitegi-guneen garapenari dagokionez (2001eko martxoa), eta aprobetxamenduari dagokionez, 2.038.769 m² bizitegi eremu daude proiektatuta, hots, finkatutako bizitegien azalera baino %27 gehiago; garatuko diren bizitegi-gune berri horien auzokako banaketa aztertzen badugu honako auzo hauek nabarmentzen direla esan daiteke: Altza (gutzizkoaren %20,4), Aiete (%13), Amara Berri (%12,8), Antiguo-Ondarreta (%11,6) eta Ibaeta (%7,9). Bost auzo horiek batera ia gutzizkoaren %66a osatzen dute.

Aurreikusitako industria-garapenari dagokionez (ustiapena kontuan hartuta), 580.429 m² industria-eremu daude proiektatuta (jada finkatuta dagoen industria-azalera %154 handitzea dakarrena). Kasu honetan, auzokako banaketan bereziki Ibaeta (gutzizkoaren %45,8) nabarmentzen da eta ondoren baina alde handiarekin Añorga (%21,7), Altza (%16,9) eta Loiola-Martutene (%11,5). Lau auzo horiek gutzizkoaren %96a osatzen dute.



PLAN ESTRATEGIKOA
Donostia-San Sebastián

15.3. Koadroa Hiri-plangintzan aurreikusitako industria garapena (2001eko martxoa) *

AUZOA	INDUSTRIA-GUNEAREN AZALERA		USTIAPENA						% Projekt./Fink at.
			Finkatua		Aurreikusitakoa		Gutzizkoa		
			m ² (a)	%	m ² (g)	%	m ² (g)	%	
Altza	336.595	18,0	56.542	15,0	97.951	16,9	154.493	16,1	173,2
Añorga	518.508	27,7	45.224	12,0	126.123	21,7	171.347	17,9	278,9
Ategorrieta-Ulia	-	0,0	476	0,1	-	0,0	476	0,0	0,0
Egia	25.780	1,4	23.421	6,2	-	0,0	23.421	2,4	0,0
Ibaeta	452.863	24,2	87.017	23,1	265.573	45,8	352.590	36,8	305,2
Loiola-Martutene	375.791	20,1	162.285	43,1	66.526	11,5	228.811	23,9	41,0
Miracruz-Bidebieta	-	0,0	981	0,3	-	0,0	981	0,1	0,0
Miramón-Zorroaga	-	0,0	850	0,2	-	0,0	850	0,1	0,0
Zubieta	162.042	8,7	-	0,0	24.256	4,2	24.256	2,5	-
Total	1.871.579	100,0	376.796	100,0	580.429	100,0	957.225	100,0	154,0

*1995eko Plan Orokorreko jatorrizko aurreikuspenak eta ondoren eginiko doikuntza eta aldakuntzak jasotzen ditu. Iturria: Donostiako Udaleko Etxebizitza eta Hiri-plangintza Zuzendaritza.

Hiri-plangintzan aurreikusitako eremu-tertzarioen garapenari dagokionez (ustiapena kontuan hartuta), 470.703 m² eremu tertziario daude proiektatuta (jada finkatuta dagoen azalera tertziarioa %37,5 handitzea dakarrena). Eremu tertziario berri horren auzokako banaketa aztertuz gero honako auzo hauek nabarmentzen dira: Miramon-Zorroaga (gutzizkoaren %25,3), Altza (%17,1), Amara Berri (%13,8) eta Antiguu-Ondarreta (%12,4). Lau auzo horien artean guztizkoaren %69a osatzen dute.

15.4.Koadroa Hiri-plangintzan aurreikusitako eremu tertziarioen garapena (2001eko martxoa) *

AUZOA	EREMU TERTZIOAREN AZALERA		UZTIAPENA						% Proyekt./Fin kat.
			Finkatuta		Proiektatua		Gutzizkoa		
			m ² (a)	%	m ² (g)	%	m ² (g)	%	
Altza.....	264.710	13,3	73.398	5,8	80.565	17,1	153.963	8,9	109,8
Amara Berri.....	1.350	0,1	162.220	12,9	64.765	13,8	226.985	13,2	39,9
Añorga.....	-	0,0	7.324	0,6	6.600	1,4	13.924	0,8	90,1
Antiguu-Ondarreta	-	0,0	62.684	5,0	58.498	12,4	121.182	7,0	93,3
Ategorrieta-Ulia.....	-	0,0	24.764	2,0	-	0,0	24.764	1,4	0,0
Aiete	-	0,0	19.281	1,5	6.059	1,3	25.340	1,5	31,4
Erdia	-	0,0	391.477	31,2	15.665	3,3	407.142	23,6	4,0
Egia.....	19.087	1,0	77.480	6,2	38.644	8,2	116.124	6,7	49,9
Gros	-	0,0	200.520	16,0	2.981	0,6	203.501	11,8	1,5
Ibaeta.....	4.360	0,2	51.272	4,1	26.300	5,6	77.572	4,5	51,3
Igeldo.....	34.760	1,7	12.911	1,0	2.116	0,4	15.027	0,9	16,4
Intxaurrondo	-	0,0	49.685	4,0	7.525	1,6	57.210	3,3	15,1
Loiola-Martutene	-	0,0	24.714	2,0	15.033	3,2	39.747	2,3	60,8
Miracruz-Bidebieta	6.560	0,3	46.827	3,7	8.515	1,8	55.342	3,2	18,2
Miramón-Zorroaga	1.304.470	65,4	47.753	3,8	118.907	25,3	166.660	9,7	249,0
Zubieta	360.520	18,1	2.424	0,2	18.530	3,9	20.954	1,2	764,4
Total	1.995.817	100,0	1.254.734	100,0	470.703	100,0	1.725.437	100,0	37,5

* 1995eko Plan Orokorreko jatorrizko aurreikuspenak eta ondoren eginiko doikuntza eta aldakuntzak jasotzen ditu. Iturria: Donostiako Udaleko Etxebizitza eta Hiri-plangintza Zuzendaritza.



PLAN ESTRATEGIKOA

Donostia-San Sebastián

Lurzoruari dagozkion erabaki garrantzitsuak udaleko ikuspegi sektorialean oinarrituak hartzen dira eta ez ikuspegi osatu batean oinarriturik. Beraz, lurzoruaren ordenamendu globalagoa izateko plangintzan parte hartzen duten eragileen, administrazio maila ezberdinen... arteko hausnarketa bateratua falta da.

Planeamenduan oso presente dago artean ere udalaren eskala edo ikuspuntua, eta, zentzu honetan, ikuspuntu metropolitarra hartu eta inguruko udalekin lankidetzan aritzeko premia aipatzen da.



16. INGURUMENA ETA JASANGARRITASUNA



16. INGURUMENA ETA JASANGARRITASUNA

Ekonomiaren garapenak ingurumenean duen eraginaren (negutegi efektua, ozono geruza, basamortutzea...) inguruko kezka gero eta handiagoa da munduan eta lurralde eremu guztietara zabaldu da (baita herri edo udal mailara ere). Garapen jasangarriaren beharra azpimarratzen da egun.

Testuinguru honetan, segidan Donostiaren arrasto ekologikoa (planetan duen eragin ekologikoa) aztertzen da lehenbizi. Ondoren Bertako 21 Agenda (egun garatzen ari da) gure herrian ezartzeko prozesua aipatzen da. Agenda hau ezartzeak garapen jasangarriaren (bizitza kalitatea hobetu baina kapital naturalaren eta bertako ahalmen ekonomikoen arteko oreka lortuz) filosofia onartzea dakar berekin. Aipatu agendaren diagnostikoak eta ekintza programak bertako Plan Estrategikoaren garapenean eta ondorengo inplementazioan kontuan hartzekoak izango dira.

16.1. DONOSTIAREN ERAGIN EKOLOGIKOA

Eragin ekologikoa kontzeptua definitu aurretik, gizakiok naturako produktuak eta zerbitzuak kontsumitzen ditugunez kontuan hartu behar dugu Lurrean denok dugula eragina. Hori ez litzateke arazoa izango, gizakion karga planetaren karga ahalmena baino handiagoa ez den bitartean.

Hain zuzen ere, eragin ekologikoaren kontzeptua arazo hori aztertzeke sortu zen (1990ean William Reesek eta Mathis Wackernagelek sortu zuten Kanadako Vancouver Unibertsitate britainiarrean). Gizakion eragina, azalerari dagokionez, zenbatekoa den neurtzeko sortu zen, hau da, egungo bizitza moldeari eusteko jendeak erabiltzen dituen baliabide naturalak neurtzeko. Eragin ekologikoa neurtzeko bi puntuok hartzen dira kontuan: lehenbizi, biztanle kopuru zehatz baten materia eta energia kontsumoa kalkula dezakegu eta ondoren, kontsumo hori ekoizteko behar den lur edo itsaso azalera zenbatekoa den azter dezakegu.

Hala, edozein populazioren (norbanakoarengandik hasi eta hiri edo herrialde baterainokoa) eragin ekologikoa (edo karga ahalmen egokia) baliabide guztiak ekoizteko okupatuak diren eta aldi berean populazio horrek sortzen dituen hondakin guztiak asimilatzeke ekologikoki produktiboak diren lurra eta itsasoa dira, (laboreak, bazkalekuak, basoak edo uretako ekosistemak). Aipatu biztanleria horrek duen bizitza maila duela eta azalera hori dagoen lekuan dagoela.

Gizakiok mundu guztiko baliabideak kontsumitzen ditugu eta gizakiok sorturiko hondakinek ia leku guztietan dute eragina. Gizakien asentamenduen kokapen ekologikoa ez dator bat kokapen geografikoarekin. Beraz, eragin ekologikoaren azalera etena eta sakabanatua dago planetan zehar.



Gure eragin ekologikoa edo karga ahalmen egokia zein den ezagutzen dugunean, erabil daitekeen planetako azalerarekin edo karga ahalmen orokorrarekin alderatu behar dugu. Hala, defizit ekologikoa edo naturaren gainkarga baten aurrean aurkitzen garen jakin ahal izango dugu.

Idea orokorra honako hau da: planetaren karga ahalmena teknologiari esker infinitua da eta gizakion erabilerako azalera, berriz, finitua. Egun, 0,25 labore hektarea, 0,6 bazkaleku hektarea, 0,6 baso hektarea eta eraikita dagoen 0.03 hektarea per capita lur ekologiko produktiboa batzen badugu, biztanle bakoitzari 1,5 lur hektarea dagozkiola konturatuko gara, itsasoa gaineratuz gero kopuru hori 2 hektareakoa litzateke.

Baina, azalera hori guztia ez da bakarrik guk kontsumitzeko, gizakiarekin batera dagoen milioika espeziek ere hor dute bizilekua. Hala, Brundtland Batzordearekin (Munduko Ingurumen eta Garapen Batzordea) bat eginez, ahalmen ekologikoaren %12, ekosistema guztiak kontuan hartuz, zaindu egin behar da biodibertsitatea babesteko. %12 hori kontuan hartuz, lehen aipatu ditugun 2 hektareetatik 1,75 bakarrik legokioke biztanle bakoitzari.

Biztanleko 1,75 hektarea hauek aztertu diren lur eremu ezberdinen eragin ekologikoa alderatzeko erreferentzia puntua lirateke eta balore horretara mugatu beharko genuke. Egun, biztanle bakoitzaren batz besteko eragina 2,3 hektareakoa da, karga ahalmen orokorra baino %30 gehiago.

Beraz, gizakiok naturak berriro sor dezakeena baino gehiago kontsumitzen dugu eta horrela ondasun natural orokorra gehiegi ari da ustiatzen. Beraz, erronka garapen jasangarria lortzean datza; gizakiok Lurrean dugun eragina nabarmen murriztu, egungo belaunaldiak eta etorkizunekoak eta gainontzeko espeziak egoera osasuntsuan bizi daitezten. Eragin ekologikoa aztertzen badugu, baliabideen kontsumoa zenbat murriztu behar dugun edo teknologia zenbat hobetu behar dugun jakingo dugu jasangarritasuna lortzeko. Gainera, gure bizitza moldeak naturan duen eragina ulertzen lagunduko digu eta egungo garapen kontzeptuaren benetako eragina zein den ikusten; moneta azterketa tradizionalak kontuan hartzen ez dituen eragin asko ikusten baitira egoera ekologikoa aztertuz.



16.1. Koadroa

Herrialdeen araberako eragin ekologikoaren muturreko baloreak, 1997.

Herrialdea	Biztanle bakoitzeko hektareak
Estados Unidos	10,3
Australia	9,0
Canadá	7,7
Nueva Zelanda	7,6
Islandia	7,4
Egipto	1,2
Etiopia	0,8
India	0,8
Pakistán	0,8
Bangladesh	0,5

Iturria: "Ecological Footprints of Nations", Nazio Batuak

Nazio Batuen "Ecological Footprints of Nations" (1997) txostenak adierazi dituen eragin ekologikoaren bost balore altuenak eta baxuenak azaltzen dira honekin batera doan koadroan. Aipatu txostenak 52 herrialderen eragin ekologikoa aztertu du, mundu guztiko biztanleriaren %82 (52 horietatik 10ek bakarrik dute biztanleko 1,75 hektareako eragina baino txikiagoa. Honekin argi geratzen da gizakiok karga ahalmena gainditu egin dugula eta herrialde garatuek oraindik gehiago areagotzen dutela karga hori).

Gure herriari dagokionez, 2000ko bigarren zatian Donostiaren eragin ekologikoari buruzko azterketa bat egin zen, Bertako 21 Agenda ezartzeko planaren baitan. Txosten hori Lana Sustatzeko Programa baten baitakoa da, udaleko Ekonomia, Lan eta Merkataritzaren garapenerako Sailak eta Osasun, Ingurumen eta Kontsumo sailak elkarlanean egindakoa.

16.2. Koadroa

Donostiaren eta erreferentzia diren beste hiriburu batzuen eragin ekologikoa

Herrialdea	Biztanle bakoitzeko hektareak
Barcelona	3-3,5
Helsinki	3,4
Toronto	7,6
Santiago de Chile	2,6
Donostia-San Sebastián	3,6

Txosten horren arabera, Donostiaren eragin ekologikoa biztanleko 3,6 hektareakoa da. Beste hiriburu batzuetako emaitzekin alderatuz gero (oraindik eragin ekologikoa hiri gutxietan aztertu dela aipatu behar da) gure hiriaren eragin ekologikoa Bartzelona edo Helsinki bezalako hirien antzekoa, Torontorena baino dezente txikiagoa eta Txileko Santiagorena baino altuagoa dela konturatuko gara. Halaber, gure eragina munduko batz bestekoa (2,3) baino altuagoa da eta planetan biztanle bakoitzari dagokion 1,75 hektarea baino dezente altuagoa



16.3. Koadroa Donostiaren Balantze ekologikoa

Kontzeptua	Has/Biztanleko	Hektareak
Eskaera=Eragin ekologikoa=Betetako azalera	3,6	641.625
Eskaintza=Karga ahalmena=Libre dagoen azalera	1,75	311.901
Defizita=Betetako azalera – Libre dagoen azalera	-1,85	-329.724

Hala, udalerrriaren eragin ekologikoa (biztanleko 3,6 hektarea), hiritar guztien banakako eragina gehitzen badugu (1998ko biztanleari buruzko datuak erabiltzen dira, 178.229 lagun) 641.625 hektareakoa da (105 bider gehiago hiriaren azalera baino. Hiriaren azalera 6.109 hektareakoa da). Planetan biztanle bakoitzeko 1,75 hektarea daudela libre kontuan hartuta, Donostiako biztanleei 311.901 hektarea legozkieke (hiriaren azalera baino 51 bider gehiago).

Beraz, egun gure udalaren eskaera eskaintzaren bikoitza da, hau da, dagokigun azaleraren bikoitza ari gara betetzen. Beraz, donostiarrek beren kontsumoa (eragin ekologikoa) %50 murriztu beharko lukete mundu mailako baliabideen banaketa zuzenarekin bat etortzeko.

16.2. 21 AGENDA DONOSTIAN: BERTAKO EKIMENA JASANGARRITASUNAREN ALDE

16.2.1. Bertako 21 Agendaren garapena

Bertako 21 Agenda Udalaren egitura Plan bat da. Udaleko Ingurumen, ekonomia eta gizarte politiken integrazioan, irizpide jasangarriak hartuz, oinarritzen da. Ordezkaritza politikoaren, udaleko teknikarien, eragilearen eta hiritarren lankidetzarekin eta horiek guztiek adostutako erabakietatik sortu da.

Bertako 21 Agenda Donostian ezartzeko eta garatzeko honako etapa hauek ezarri dira:

⑧ **Filosofia eta udaleko mekanismoen hasiera**

Donostiako udalak 1998ko maiatzaren 23an sinatu duen Aalborgeko eskutitza. Hala, garapen jasangarriaren filosofia bereganatu zuen eta 21 Agenda hirian ezartzeko konpromisoa hartu zuen. Ingurumen eta Kontsumo saila 21 Agenda bultzatzen ari da ingurumenaren ikuspegitik, alderdi sozio-ekonomikoa mahai paraleloei utziz.

21 Agenda ezartzeko hartu den lan metodologiari jarraituz eta parte hartze eta hausnarketa eremu kolektiboa sortze aldera Ingurumen Aholkularitzarako Batzordea sortu zen. Batzorde horren bidez, hiritarren parte hartzea sustatu nahi da eta udalak Donostiaren jasangarritasunean hartu duen konpromisoari buruzko informazioa zabaldu nahi da. Hiriaren garapenean zer ikusia duten ikuspegi diferenteek beren proposamenak



aurkezteko foroa izan zedin. Aholku Batzordea kontsultarako erabiliko da eta 21 Agendari dagozkion gaiak jorrazteko udalaren ekintzak aztertzea eta horien inguruko aholkuak ematea izango da bere lana. Bertan sortutako proposamenak emango ditu edo kanpotik iritsi direnen gainean aldaketak edo zuzenketak egingo ditu.

⑧ **Diagnostikoa: arazoak eta kausak identifikatu**

21 Agenda ezartzeko prozesuaren lehen zatia garatzen ari dira. Orain egoeraren diagnostia egiten ari dira Osasun, Ingurumen eta Kontsumo teknikariak eta beste administrazio batzuetakoak.

Hain zuzen ere, Agenda Lokalaren esparru ezberdinei dagozkien 11 lan-mahai eratu dira (mahai horiek zein diren zehaztuko da eta esparru horietako udal egoeraren deskripzio txiki bat egingo da hurrengo atalean) hiriaren egungo egoerari buruzko aurretiko diagnostiko bat egiteko. Arazoak eta kausak identifikatuko lirateke aipatu diagnosian, egoeraren ikuspegi orokorra ematea du helburu.

Agiri hau oinarrizkoa izango da 21 Agenda garatzeko, horregatik hiritarrek kontsultatu behar da ikuspegi objektiboagoa, teknikoa ez dena ere izateko, emateko. 2002ko urtearen hasieratik Ingurumen Aholkularitzako Batzordeko kideak ere aipatu lan-mahai horietan sartu dira. Hiritarren parte hartzearekin garatutako politketan urrats berri bat da aipatutakoa eta beste aholku batzorde batzuekin, hala nola mugikortasun batzordearekin, modu sinergikoan lan egingo du.

Epeei dagokienez, gaikako talde ezberdinen (lan-mahaiak) diagnostikoak 2002ko erdi alderako eginak egongo direla espero da.

⑧ **Lehentasuna duten arazoak**

Aurkitu diren arazo guztien artean konponbidea azkarren norik behar duen identifikatu behar da.

⑧ **Helburu orokorren eta espezifikoaren definizioa**

Hobekuntzarako helburu orokorrak definitu behar dira eta hobekuntzarako helburu espezifiko batzuk zenbatu behar dira lehentasuna duten arazoetarako.

⑧ **Adierazle eta ekintza programen diseinua**

Adierazleak eta ekintza programak helburu espezifikoak lortzeko diseinatuko dira.

Epeei dagokienez, adierazle eta ekintza programa horiek 2002ko bukaeran prest egongo direla espero dugu.

⑧ **Ekintza programak gauzatzea**



Zerbitzuek programa ezberdinak garatuko dituzte eta programaren hasieran adierazle ezberdinei dagozkien datuak neurtuko dira.

⑧ **Ebaluazioa**

Adierazle ezberdinen hasierako baloreen eta ekintza programak ezartzean eta garatzean izango duten bilakaeraren bitartez lan-mahaiek programen aldaketak eta garapena ebaluatuko dituzte adierazleen bitartez.

16.2.2. Gaikako eremuak-Bertako 21 Agendako Lan-mahaiak

Aurreko atalean aipatu lez, diagnostikoa egiteko Donostiako ingurumenari dagozkion alderdi esanguratsuenak biltzen dituzten 11 lan-mahai eratu dira:

- Ura
- Hondakinak
- Aire
- Energia
- Industria
- Ingurune naturalaren, paisaiaren eta biodibertsitatearen kontserbazioa.
- Turismoa
- Kontsumoa
- Ingurumenari buruzko informazioa hiritarrari
- Plangintza
- Ingurumenaren osasuna

Ondoren, eremu horietan udalerraren egoera zein den deskribatzen da (batik bat Donostiako Udaleko Ingurumen Bulegoak eskainitako informazioaren arabera). Kontuan hartu behar da lan-mahaiek udalerraren egoera zein den sakonki aztertuko dutela (diagnostiko hauek 2002ko erdi alderako eginak egongo direla espero da) eta ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren adierazleak eta ekintza programak diseinatuko dituztela (lan hau 2002ko bukaerarako amaitua egongo dela aurreikusi da).



⑧ **URA**

Ura ondasun oso preziatua da, baina falta denean bakarrik konturatzen gara benetan zenbaterainokoa den bere balioa. Gure inguruan maiz egiten du euria, horregatik ez dugu pentsatu ere egiten ura kenduko digutenik. Egia da, gure hirian ur murrizketak gutxitan egin direla, baina horrelako egoera batean gaudenean konturatzen gara zein beharrezkoa den gure eguneroko bizitzarako.

Añarbeko urtegiak hornitzen du urez Donostia. 2001ean hiriak 22 milioi metro kubiko ur kontsumitu zuen, beraz, urtean biztanle bakoitzak 122.000 litro bat az bestea. Azken urteetan Donostiako ur kontsumoak behera egin du (2001eko kontsumoa 2000koa baino 2 milioi metro kubiko gutxiagokoa izan zen eta 1994koa baino 5 milioi txikiagoa), batetik Añarbetik etxeetara doazen hodiak ur jarioak konpontzeko inbertsio handiak egin dira eta bestetik hiritarren kontzientziazioa gero eta handiagoa da uraren erabilerari dagokionez.


Bestalde, normalean ez gara ohartzen ura guk kontsumitu ondoren hondakin-ur bihurtzen dela eta horrek ingurumenean eragina duela. Beraz, ingurumenean duen eraginak, lehen aipatutakoaz gain, bultzatu beharko lituzke hiritarrak ura aurreztera.

Puntu horri dagokionez, Donostiako hodi-biltzaileen sistema ia bukatuta dagoela (itsaspeko hustubide berria martxan jartzean gure hondartzetako uraren kalitatea hobetu egin da) nabarmendu behar da. Loiolako hondakin-uren (EDAR) araztegia bakarrik falta da martxan jartzeko (2004ko erdi aldean funtzionatzen hasiko dela espero da): gure hiriko saneamendu sistema osatzeko elementu estrategikoa.



16.1. Grafikoa


Grafikoa Gipuzkoako saneamendu sistema (2000ko abendua).



Azkenik, azken urteotan Urumea ibaiaren egoera hobetzen ari dela aipatu behar dugu. Bere uren kalitatea egun onargarria da eta pixkanaka-pixkanaka bere kalitate biologikoa berreskuratzen ari da.



16.2. Grafikoa Gipuzkoako ibaietako uren Kalitatea



⑧ HONDAKINAK

Egun, Donostiako biztanle bakoitzak egunean kilo bat zabor sortzen du. Hobeto ulertzeko honako adibide hau: kantitate hori hiriko biztanle kopuruarekin biderkatzen badugu urtero Anoeta futbol zelaia bete eta gainera 10 metroko altuera emateko adinako zabor bolumena izango genuke. Zabor hori guztia San Marko hondakindegian biltzen da (beste hamaika herritako zaborra ere bertan pilatzen da), lehen naturarena zen eremu bat betetzen du eta horrek ingurumenean eta ekonomian eragina du.

Bestalde, gero eta hondakin gehiago birziklatzen bada ere, zabor produkzioak azken urteotan gora egin du. Beraz, kontsumitzeko garaian horren inguruko hausnarketa egin beharko genuke, beharrezkoa da gure hiriko egungo produkzioa eta birziklapen egoera ebaluatzea eta gure hondakinak hobeto kudeatzeko estrategiak egitea. Hiritarrek eta administrazioak jarraitu behar duten politikak honako hauetan oinarritu behar du: murriztu, berrerabili eta birziklatu.



16.4.Koadroa EAEko hiri-hondakin solidoen zabortegi kontrolatuak 1998.

Lurraldea	Zainduta egon daitezkeen herri kopurua	Tratatutako HHs (t/urtean)
GIPUZKOA		
Donostia-S. Sebastián (S. Marcos)	12	146.172
Sasieta (Beasain)	30	33.792
Lapatz (Azpeitia)	16	31.447
Zarautz	5	17.926
San Blas(Tolosa)	27	18.722
BIZKAIA		
Bilbao	12	243.361
Amoroto	21	12.461
Igorre	29	54.340
Gordexola	11	9.771
Jata	38	60.398
ALAVA		
Vitoria-Gasteiz	56	85.296

Iturria: Ministerio de Obras Públicas, Transporte y medio ambiente. Dirección general de Política Ambiental.

Gipuzkoako Foru Aldundiak egin duen Hondakin Planaren aurrerapenean adierazten denaren arabera, hondakindegien erabileran oinarritutako egungo zabor kudeaketa sistema agortuta dagoela esan daiteke (San Marko hondakindegia lau urteren buruan beteta egongo da). Bere ordez, aukerarik egokiena hondakinen birziklapena eta errausketa konbinatzea litzateke (alternatiba ezberdinak erabiliz).

⑧ **AIREA**

Lan-mahai honek jadanik egin du Donostiako aire eta soinu poluzioaren aurre diagnosis. Aipatu diagnosi horren alderik garrantzitsuenak ondoren laburbilduko ditugu:

a) Airearen poluzioa

Airearen poluzioari dagokionez, Donostiako airearen kalitatearen jarraipena EAEko Airearen Kalitatea Zaintzen eta Kontrolatzen duen Sareak egiten duela aipatu behar da. Egun, sare horrek gure hirian neurgailu diren bi estazio ditu martxan (bat Pio XII. Plazan eta bestea Ategorrietan). Beste bat jartzekotan dira (segur aski Zaragoza Plazan). Kontrolatu diren elementu poluitzaileak honako hauek dira:



- Pio XII. Plazako estazioan: sulfuro oxidoa, nitrogeno oxidoa, karbono monoxidoa, ozonoa, partikula esekidura eta plomu
- Ategorrietako estazioan: sulfuro oxidoa, nitrogeno oxidoa, ozonoa eta partikula esekidura.
- Zaragoza plazako estazioa: nitrogeno oxidok, karbono monoxidoa, partikula esekidura.

Azken boladan eginiko ikerketen arabera, Donostiako airean poluzio gehien sortzen duen eragile nagusia zirkulazioa da. Airearen poluzioaren inguruan, kutsadura arazo puntualak izan dira leku eta ordu konkretuetan eta beti trafikoarekin lotuta. Hala ere, Cementos Rezola S.A. enpresa Donostian kokatuta dagoela ere kontuan hartu behar da. Egungo arautegiaren arabera, airea kutsatzen duen eragileetako bat izango litzateke aipatu enpresa eta A taldean sartzen da. Gainera, Añorga-Txikiko bizilagunak askotan kezatu direnez eta salatu dutenez enpresa horri udalak jarraipen berezia egin behar dio.

Bestalde, azken urteotan kontuan hartzen diren elementu poluitzaileen baloreei dagokienez, kasu guztietan Estatuko Arautegiak gizakiaren osasuna babesteko ezartzen dituen baloreen azpitik geratzen direla aipatu behar da. Alabaina ezin esan gauza bera hartu diren gida baloreei buruz. Pio XII plazan jasotako nitrogeno oxidoren balore gidak aipatu arautegi horrek mugatzen dituenak gainditzen ditu. Horren arrazoi bakarra, trafikoa izan daiteke, ibilgailu asko hirira hortik sartu eta ateratzen baita.

Urtarrilaren 1etik aurrera, lege arautegia aldatu egingo dela nabarmendu behar da. Eta airearen kalitatea neurtzeko indizeak orain artekoak baino zorrotzagoak izango direla esan daiteke. Beraz, airearen kalitatearen diagnostikoak aldaketak izan ditzake hurrengo urtetik aurrera.

b) Poluzio akustikoa

Zarata, soinu aspergarria eta ezgaraiakoa, kezka iturri da egun. Izan ere, nekagarria da eta eragina du osasunean, gizabanakoen portaeran eta pertsonen jardueretan; gainera ondorio psikologikoak eta sozialak eragiten ditu.

Azken urteotan, zarata eragileen bilakaerak eta bere hazkunde erregular eta azkarrak agerian utzi dute orain arte poluzio akustikoa saihesteko aurrera eraman diren neurriak ez direla egokiak eta eraginkorrak izan. Poluzio akustikoa hiriko ingurumena erasotzen eta gure hiriko kalitatea murrizten duen elementurik garrantzitsuenetakoa bihurtzen ari da. Energia akustikoaren hazkundeak lotura estua du biztanle kopuruaren gorakadarekin, jardueren mekanizazioarekin eta



pertsonak eta merkantziak garraiatzeko motordun ibilgailuen erabilera hazkundearekin.

Gure hiriko poluzio akustikoaren arazorik nagusienak (hiritarrek salaketa eta kexa asko egin dituzte) sailkatutako jardueren funtzionamenduak (lehen M.I.N.P. izenez ezagunak) eta beren instalakuntzek eragiten dituzte. 1999an Obra Txikien eta Jardueren Bulegoak 265 jarduera berri sailkatu zituen eta Ingurumen injinerutzaren Zerbitzu Teknikoak 130 lokal ikuskatu zituen zaratak edota bibrazioak zirela eta, beraien aurka salaketak jarriak zeudelako.

Bestalde, azken urteotan hiria asko hazi dela nabarmendu behar da, etxebizitza berriak eraiki dira (Intxaurren, Benta Berrin...) eta horrek jarduera berriak sortarazi ditu. Gainera, jarduera zaharren ezaugarriak ere garrantzitsuak dira, beren jarduera neurtzeko oso arautegi leunak baitituzte poluzio akustikoari dagokionez. Eta beste batzuetan, jarduerak martxan jarri ziren garaian ez zen horrelako elementurik kontuan hartu ere egiten.

Beste poluitzaile garrantzitsua trafikoa da, bai hirikoa bai hiriaren inguruko errepide, autobide eta abarretakoa. Gaur egun errepide horiek guztiak txikiak geratu dira hiria ikaragarri hazi delako. Gainera, hiriko zenbait lekutan arazoa areagotu egiten da irteera eta sarrera puntuak direlako (Carlos I. Etorbidea, Intxaurren...). Leku hauetan dagoen soinua gomendatutakoa baino askoz handiagoa da.

Halaber, erdigunean poluzio akustikoak gora egin du erdigunetik sartu edo ateratzeko jarri diren kaleetan (Prim, Urbietan, Mirakruz...). Aitzitik, beste batzuetan soinua gutxitu egin da oinezkoentzako direlako kale horiek. Hala ere, kale horietan egunez soinu dezente egoten da merkataritza gune bihurtu direlako.

Ibilgailuek eragiten duten soinua aipatzen hasita ezin ahaztu ziklomotoreek eta motozikletek (ibilgailu horien kopuruak ere gora egin du autoa baino garraio bide arinagoa delako) eragiten dutena, bereziki, leherketetarako isilgailurik gabe edo behar ez diren bezalakoekin zirkulatzen dutenean.

Eraikinen barruko poluzio akustikoaren arazoak gizakiaren eta instalakuntzen jarduerak eta eraikinetako makineriek eragiten dituzte (igogailuak, girozko sistemak eta berogailuak, elektragailuak...) NBE-CA-88-ak, eraikin berri guztiek bete beharreko araua, zarata neurtzeko gutxienekoak ezartzen ditu, soinua eta bibrazioak transmiti ez daitezen. Hala ere, arau horrek ez du ikuskapenik egitea derrigortzen, beraz, arau hori beteko denentz ikusteko dago.

Badirudi, trenak hiritik pasatzean sortzen duen soinua, nahiz eta nahiko nabarmena izan, noizean behinekoa delako (bakarrik tren pasatzean) eta leku zehatz batekoa delako (trenbidearen ondoan dauden eraikinetan) ondo onartzen dutela pairatzen dutenek.



PLAN ESTRATEGIKOA

Donostia-San Sebastián

Bestalde, Donostian ez dago oro har industriarik hiri-ehunean. Hala ere, oraindik zenbait lekutan (Altza, Herrera...) industriak eta etxebizitzak elkarren ondoan daude, horrek sortzen duen arazoarekin. Dena den, egun arrunta bihurtzen ari da hirian kokatutako era horretako industriak eta tailer mekaniko txikiak industria gunetara joatea (Martutene, Belartza...). Industriak sortzen duen soinuari dagokionez, portuak eragindakoa aipatu behar dugu. Gainera, hiri barneko zenbait guneri eragiten dio soinu horrek eta batez ere Pasaiaiko portura iristen diren txatar ontzien karga eta deskargak sortzen duenak.

Azkenik, poluzio akustikoaren egoera orokorraren diagnostiko bat egiten ari bagara ezin ahaz dezakegu komunitatearen soinua izenez ezaguna dena. Soinu hori, gizakiaren jarduerak bide publikoetan eta jendea ibiltzen den lekuetan sortzen dutena da. Karga eta deskarga jarduerak, obrak, alarmak, sirenak, etxeko animaliak, festak, erromeriak, terrazak e.a sartuko genituzke talde horretan. Arazo hau murrizteko beharrezkoa da hiriko elkarbizitzak ezartzen dituen mugak errespetatzea eta gizakion arteko errespetua.

Beraz, Donostiako poluzio akustikoaren arazoak, herri guztietakoak bezalaxe, era askotarikoak dira eta elementu ezberdinek eragiten dituzte. Beraz, kutsadura mailak murrizteko hartuko diren neurriak ere era askotarikoak eta egoera bakoitzari egokitutakoak izan behar dute.

Kutsadura murrizteko jadanik hartu diren neurriei dagokienez, poluzio akustikoari aurre egiteko garaian arazorik nagusia mota honetako kutsatzaileak erregulatzeko arautegi falta izan da. Hutsune hori, gure Autonomia Erkidegoan 1998an bete zen Euskal Herriko Ingurumen babeserako Lege Orokorrekin. Ingurumen baliabideen babesa defendatzen du eta soinu eta bibrazioen aurkakoa da. Herri ordenantzak egiteko eta beren lurralde antolakuntzan kalitate, mugak eta alerta seinaleak ezartzeko ahalmena ematen die. Poluzioa murrizteko neurriak hartzeko ahalmena izango dute herriek kutsadura maila altuko gunetan eta soinua eragingo duten kutsatzaile berrien ezarpena ere muga dezakete.

Zentzu honetan, Udal honek aurrera eraman duen ekintza garrantzitsua Poluzio akustikoari aurre egiteko ordenantza erregulatzailerak egitea izan da. Ordenantza horren bidez, bereziki klasifikatutako jardueren, beren instalakuntzen eta makineriaren funtzionamendua erregulatu nahi dira. Halaber, ibilgailuen soinua, komunitatearen soinua eta eraikinen baldintzak ere erregulatu dituzte. Une honetan, lehenengo zirriborroa egin da, behar dituen zuzenketak egin ondoren, maiatzaren bukaeran onartuko da.

Ostalaritzak sortzen duen soinuari dagokionez, orain dela gutxi onartu da establezimendu publikoen eta jolas guneen kokapena erregulatu duen Udal Ordenantza. Ordenantza honen bidez 1994tik aurrera indarrean zegoena aldatu egin da. Era honetako jarduerak jartzea



mugatu egin nahi da eta horretarako lokalen arteko gutxieneko distantziak ezarri dira . Horrekin soinua eragindako efektuak saihestu egin nahi dira eta horrekin batera bizilagunen arazoak ere bai. Gainera, ordenantza honek badu berrikuntzarik. Ordenantza honen arabera zenbait gune beteta daude, eta leku horietarako mugak zorrotzagoak dira. Alde Zaharra eta Hiriko ekialdeko zabaldura beteak daude ordenantza honen arabera.

Ordenantza hau onartzearekin batera, Alde Zaharreko eta hiriko ekialdeko zabalduran dauden ostalaritza lokalak ikuskatzeko Plan bat egin dela nabarmendu behar da. Ikuskatze horrek 65 ostalaritza lokalen baldintza akustikoak ezagutzeko balioko du. Lokal horiek guztiek musika aparatua dute eta gauez egiten dute lan batez ere.

Ziklomotereek eta motozikletek eginiko soinua ere kezka iturri izan da udalean. Ondorioz, Alkateak bando bat argitaratu zuen arazo hau murrizte aldera, baina ez zuen arrakasta handiegirik lortu. Zirkulazioari dagokionez, Trafiko Sailak gure hirian egindako lanari esker kale batzuetatik zirkulazioa desagertu egin dela aipatu behar da; izan ere, oinezkoentzat bakarrik dira kale horiek. Baina, ezinbestean, zirkulazioa beste kale batzuetan ugaritu egin da eta poluzio maila igo egin da.

Halaber, planteamenduari dagokionez, 1995eko Hiri antolaketaren Plan Orokorrak udalerraren lurra zertarako erabil daitekeen zehaztu zuen. Beste gauza batzuen artean, industria, tailer eta tamaina bateko establezimendu komertzialen kokagunea erregulatzen du. Horrela, mota horretako jarduerak gune zehatz batzuetan kokatu dira.

Azkenik, eta arautegiari dagokionez, estatu mailako Poluzio Akustikoaren Oinarrizko Legea noiz egingo den zain gaude. Eta Eraikuntza Lege berriaren anparaoan NBE-CA-88 ordezkaturiko duen eta araua betetzen den ikusteko ikuskatzeak derrigortuko dituen arauaren zain gaude.

⑧ **ENERGIA**

21 Agendari dagokion sail honetako lan mahaiak eginak ditu aurreko analisia (egungo egoera energetikoa) eta udalak Donostian energiaren erabilera arrazionala bultzatzeko eta baliabide berriztagarriak ustiatzeko egin beharreko proposamena. Bere alderik nagusienak ondoren zehaztuko ditugu:

a) Eskari eta egitura mailak. Dibertsifikatzea

Informazioa jasotzea erraza ez denez, ikertzen diren energiak sareetakoak (elektrizitatea eta gas kanalizatua) eta energia berriztagarriak (azken hauek sail berezi batean jasotzen dira) dira.

Donostiako elektrizitate energiaren kontsumoa 2000n 630.142 Mwh-koa izan zen. Kontsumo honen banaketa aztertzen badugu, berehala



konturatuko gara zerbitzuek (guztizkoaren %45,3) eta etxebizitzek (%35,8) kontsumitzen dutela gehien, biak batera kopuru osoaren %81 baino gehiago osatzen dute. Gainontzekoa, ia dena, (%18,9) industriak kontsumitzen du. Zerbitzu alorraren baitan, Administrazio publikoak eta Argiteria publikoak, herriko administrazioaren baitakoak, hirugarren alor horretako energiaren %34 kontsumitzen dutela nabarmendu behar dugu.

Azkenik, udalerrian kontsumitutako energiaren %5 bakarrik ekoizten da bertan kogenerazio instalakuntzen (urtean 26.200 MWh) eta baliabide berriztagarrien ustiapenaren bitartez (urtean 7.200 MWh).

Kanalizatutako gasari dagokionez, etxeko eta zerbitzuen kontsumoak nabarmendu behar dira. Garraioan eta nekazaritzan energia mota hau ia ez dela erabiltzen aipatu behar da. Industria alorreko datuak oso ezberdinak dira jardueraren arabera, hala ere kontsumoa ez da handia.

Donostian, azken hamarkadan Hirugarren Sektorean (etxeak-zerbitzuak) gas kanalizatuak izan duen bilakaerak honako ezaugarri hauek ditu:

- 90. hamarkadaren hasieran, hiri-gasa kontsumitzen zen bereziki. Izan ere, momentu horretan hasi ziren energia hau ordezkatzeko gas naturala hirian sartzeko estrategia prestatzen. 2000n hiriko gas kanalizatu guztia gas naturala izan da.
- Gainera, operazio honi esker, lehen horrelako energiari izateko azpiegitura falta zitzaien lekuetara iritsi da gasa. Hedapen honekin, udalaren energia egitura aldatu ahal izan da, hau da, karbonoa eta petrolotik aterako erregaien kontsumoa murriztu egin da (fuel-olioa, gasolioa, butanoa, propanoa ...). Hala, ingurunea gehiago zaindu da.
- Zerbitzu alorraren bilakaera izugarria izan da, azken hamar urteotan 7 bider biderkatu da gas kanalizatuaren eskaria.
- Etxebizitzetako dagozkien datuak ez dira hain nabarmenak baina garrantzitsuak dira. Denbora horretan, kontsumo maila bikoiztu egin dela esan daiteke.
- Oro har, gas alorraren hedapenak hiriko eskaintza energetikoa handitzeaz gain, airea kutsatzen duten eragileen emisioa kontrolatzeko aukera eman du, gas naturalaren kalitatea kontuan hartuta.

b) *Energia eraginkortasunaren neurriak*



Ondoren aurkeztuko ditugun neurrien artean, azken urteotan egin eta EVEk parte hartu duen ikerketa eta proiektu energetikoen eta energia eraginkortasuna hobetzeko eman diren laguntzen artean ez da bereizketarik egin:

- Zerbitzu alorra:
 - Udalaren bulegoak (Udaletxea, Eskolak, Kirol Patronatua, e.a.): 13 zerbitzu;
 - Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza: 11 zerbitzu;
 - Zentro pribatuak (erietxeak, ikastetxeak, Hotelak, Elizak, Bankuak e.a.): 47 zerbitzu;
 - Kogenerazio instalakuntzak: 3 instalazio (Donostiako Ospitalea, Zorroaga Fundazio-Erresidentzia eta Pakea erietxea).
- Etxebizitzak:
 - bizilagunen komunitateak : 99 zerbitzu;
 - Etxebizitzentzako energia eraginkortasun ziurtagiriak: 6 behin-behinekoak (4 etxebizitza eta 4 zerbitzu alorrekoak)
- Garraio alorra:

Azken 15 urteotan 6 aldiz egin da Donostian matrikulatutako ibilgailuen diagnostia. Guztira 5.200 ibilgailu berrikusi ziren. Azkeneko berrikusketa Donostiako Udalaren parkeko 100 ibilgailuri egin zaie.

c) *Energia berriztagarrien errekonozimendua*

Donostia ez da nabarmentzen energia berriztagarrien ustiapenean, nahiz eta badagoen energia mota hori ustiatzeko instalazio bat baino gehiago. Ondoren, instalazio horien errekonozimendua egingo dugu beren baliabideak kontuan hartuta.

□ Biomasa

Energia mota hau ustiatzeko instalaziorik garrantzitsuena San Markos hondakindegian dagoen biogas planta da (BioSammarkos planta). Instalazio honetan, urtean, batzaz beste 7.200 MWh ekoizten dira.



□ **Minihidraulikoa**

Bakarrik zentral txiki bat existitzen da (C.H. Landarbaso) eta udalarena da. Zentral txiki honek ez du funtzionatzen 1984tik eta egun eraikina erortzeko zorian dago, beraz ez dago ekipamendu elektromekanikarik. Donostiako ur horniduraz Añarbeko mankomunitatea arduratu zenean ur kontzesio guztiak mankomunitateari berari eman zitzaizkion.

□ **Eguzki-instalazioak**

· *Fotovoltaikoa*: 6 instalazio, guztira 13.115 Wp-ko potentzia (instalazioetako bat sare elektrikoarekin konektatua dago).

Egun, Donostiako Udala bere eraikinetako batean sare elektrikoarekin konektatutako, 5 KW-ko eguzki planta fotovoltaiko bat jarri nahi du.

· *Termikoa*: 10 instalazio, guztira 314 m²-ko azalera (oro har, instalazio txikiak)

Gainontzeko energia berriztagarriei dagokienez (eolikoa...) ez dakigu ustiatzen diren.

d) Konparaketa inguruarekin

Sail honetan Donostiako egoera energetikoa beste herrietakoekin edo beste eremu geografikoekin alderatzeko aukera emango diguten adierazleak aurkeztuko ditugu.

Honen inguruko informazioa murrizta denez udalerrian, adierazle sozio-energetiko kopuru mugatua identifikatu da. Halaber, ikerketa Donostia inguruan dauden herrietan eta eremuetan egin dela eta datuak 1998-99 urteetarako, bilakaera historiko kasuetan izan ezik (1991-1999), kalkulaturako batz besteko baloreari dagozkiola aipatu behar da

Adierazleen konparaketan garrantzitsuak dira honako faktore hauek: , klima, etxebizitzetako erosotasun maila, eremu geografiko bakoitzaren energia egiturak (kontsumitzaileen esku dauden energiak), industrializazio mailak e.a. . Aipatu faktore horiek alde nabarmenak eragin ditzakete beren baloreetan.

Adierazleak oro har ikertu ondoren honako iruzkin konparatibo hauek egin daitezke Donostiako udalerraren gainean:



PLAN ESTRATEGIKOA Donostia-San Sebastián

- Egun, kogenerazio sistemen ezarpena eta baliabide berriztagarrien ustiapena lehen urratsetan daude. Etorkezun hurbilean, teknologia horien bitartez ustiapen energetikoak definitzen lagunduko duten ikerketak eta ildo honi jarraitzeko administrazioak eskainiko duen babesa funtsezkoak izango dira.
- Biztanleko elektrizitate kontsumoa 3.180 Kwhkoa da urtean, Bilbokoa baino altuagoa baina Gasteizekoa baino dezente baxuagoa. Izan ere, hiriaren inguruko poligonoetan kokatuta dauden industriek balore hori altuagoa egiten dute.
- Gas naturalaren eskaera zerbitzu alorrean nabarmen igo da, bereziki gas sare azpiegitura handiagoa delako orain eta administrazio publikoko azpisektore batzuetan (osasungintzan) kogenerazio sistemak ezarri direlako. Baina horretaz gain badu ezaugarri berezi bat, hau da, alor horretako eskaera elektrikoan argiteria publikoaren (%6,3) presentzia oso altua da, beste lurraldeetako hiriburuetaoekin alderatzen badugu. Egoera berezi horrengatik ikerketa sakon bat egin beharko da, dibergentzia hau argitze edo justifikatze aldera.
- Etxebizitzen gas eskaria 1991 eta 1999 urteen artean bikoiztu egin da Donostian eta Gasteizen. Aitzitik, aipatu denboraldi horren hasieran gas gutxi jarri zenez Bilbon beharrak 10 aldiz biderkatu dira. Oro har, gainontzeko ratioen arabera, Urteko edo biztanleko Donostiako kontsumo mailak, nahiz gas naturalarenak, nahiz elektrizitatearenak, gainontzeko hiriburuetaoak baino altuagoak dira. Hiru hiriburuetao berogailu eta ur bero beharrak, ekipamendu maila eta bere energia eraginkortasunaren maila alderatuko lituzketen ikerketen bidez hobeto ulertuko genituzke arestian aipatu desberdintasunak.

ADIERAZLEAK	DONOSTIA	GAZTEIZ	BILBO	CAPV
<u>OROKORRA</u>				
Eskaera elektriko guztiaren gaineko Produktzio Kogenerazioa (%)	3,2	13,8	0,2	10,7
Eskaera elektriko guztiaren Energia Berriztagarrien Produktzioa (%)	1,4	-	0,7	4,1
Biztanleko Elektrizitate kontsumoa (kWh/urte eta biztanleko)	3.180	5.900	2.640	5.650
<u>SERBITZUAK</u>				
Kanalizatutako Gas Hazkundera 1991- 1999 (%)	424	49	371	603
Zerbitzu sektore guztiaren kontsumo elektrikoaren kontsumoaren gaineko Argizatze Publikoa (%)	6,3	3,3	3,6	7,7
Administrazio Publikoa, zerbitzuen sektorearen inguruko kontsumo	31,7	37,0	30,3	25,1



elektrikoaren gainean (%)				
ETXEETAKOA				
Kanalizatutako Gasaren Hazkundera 1991-1999 (%)	83	106	949	540
Okupatutako etxebizitza bakoitzeko Kanalizatutako Gasaren kontsumoa (te/urteko)	4.100	5.650	1.970	2.520
Biztanleko Gas Kanalizatutako Kontsumoa (te/biztanle urteko)	1.380	1.090	660	810
Okupatutako etxebizitza bakoitzeko Elektrizitate Kontsumoa (kWh/etxebizitza eta urteko)	3.480	2.890	3.350	3.410
Biztanleko Elektrizitate kontsumoa (kWh/biztanle eta urteko)	1.170	940	1.120	1.090

Iturria: EVE eta Donostiako Udaletxea.

e) *Jarduera proposamena*

Energiaren inguruko udal administrazioaren jarduera alorra, batez ere, energiaren erabilera arrazionalarekin harremana duten ekimenek osatzen dute, bai eta energia berriztagarriak erabiltzearekin ere. Honi dagokionez, Udalak eta EEEK emandako dokumentazioa aurrez aztertuz, zenbait jarduera ildo proposatzen dira, energia eraginkortasun, eta energia berriztagarri dagokienez.

* **Energiaren Eraginkortasuna**

Ohiko energia baliabideak agortzen ari direla, eta egun erabilienak direla esatea ebidentzia sendoak dira. Horregatik, erosotasun eta bizi kalitatea murriztu gabe energia eskaera murrizteko egiten diren jarduera guztiak onak izango dira, beti. Energia eraginkortasuna hobetzeko dauden neurri ugariak, bertako administrazioentzako jarduera ezin hobea suposatzen dute, bai bere establezimendu edo lokalen kudeaketa zuzenetik, bai hiritarrei beren estrategiak lotzetik ere.

Udaletik, helburu hauek lortzen laguntzeko jarduerak ezarri beharko dira: energia kosteak murriztea, erosotasuna hobetzea, zerbitzu kalitatea handitzea, ingurugiro hobekuntzak, eta teknologia berriak jartzea.

* **Energia Berriztagarriak:**

Energia berriztagarrien ikuspegi zuzenetik, bai Europar Batasunaren mailan zein Espainiako Estatuan ezarritako helburua, 2010 urtean, energia berriztagarrien bidez, energia eskaeraren %12 lortzea da, bai Euskadi mailan (%4), bai udalerrri mailan, eta helburu hori lortzetik oso urrun gaude, eta esfortzuak konstante eta progresiboa izan beharko du, energia berriztagarri autoktonoak (lur eskasia, etab.) aprobetxatzeko baldintzak dauden arren.



Energia berriztagarri moten arabera, honoko jarduerak planteatzen dira Donostian:

*** Eguzki energia:**

- *Aprobetxamendu pasiboa:* Udalak, udal eraikin berriak eraikitzean eguzki arkitektura irizpideak sartzea bultzatu beharko luke. Gainera, pribatuen artean sustatzeko modu bat, instalakuntza eta lanak egiteko zergaren (ICIO) zati bat kentzea izango litzateke, diseinu arkitektoniko pasiboak izango lituzketen eraikuntza horietarako.
- *Eguzki Termikoa:* Udal instalakuntzen kontsumoei egiten zaien analisitik aterako da eguzki energia termiko instalakuntzaren bat egitea. Horretarako, beharrezkoa izango da teknika-ekonomia bideragarritasun azterketa bat egitea, beste batzuekin batera, esaterako kogenerazioa. Edonola ere, Udalak, udal eraikuntza berrietan eguzki energia termikoaren erabilera planteatu beharko du, ur bero eta berogailuak produzitzeko.
- *Eguzki Fotovoltaikoa:* Udalarentzako proposamena, sare elektriko orokorrarengandik urrun dauden tokiei, eguzki energia fotovoltaikoaren bidez elektrizitatea hornitzeko proposamena izango litzateke. Gainera, udal eraikinen eraikuntza edo birgaitzeak aprobetxatuz, beti, eraikinen teilatuaren zati bat, eguzki panel fotovoltaikoak jartzeko aprobetxatu beharko litzateke (sortutako energia sistema elektrikoari salduko litzaioke).

*** Energía eolikoa:**

Donostiako udalerrriaren potentzial eolikoa ebaluatu egin da, baina ez da interes gunerik aurkitu energia mota honetarako.

*** Energia hidraulikoa:**

EEEk egindako ikerketatako ondorioa da, Donostiako udalerrian horrelako zentral berriak berregokitu edo muntatzeko aukerarik ez dagoela.

*** Biomasa energia:**

Egun, Gipuzkoako Foru Aldundia, EEEREkin batera, Gipuzkoako lurralde historikoan dauden baso hondakinen energia aprobetxamendu potentziala aztertzen ari da. Gainera, udalerrri mailan baino gehiago, hondakin hauek eskualde mailan aprobetxatzea aztertzen ari da, teknika zein ekonomiari dagokionez, konponbidea bideragarria delakoan.



⑧ INDUSTRIA

Donostiako industria ehunaren ezaugarri nagusia, enpresa txiki eta ertainek (etee) osatzea da, hauek kanpoaldean egoten dira, industria poligonotan bilduta. Enpresa hauetako gehienek produkzio jarduera bat dute berekin, hauetatik produktu bat, edo metodoaren arabera hondakin handiago edo txikiagoa lortuko litzateke, egiten ari den jarduera mota eta metodoaren arabera. Hondakin hauek egoki kudeatu behar dira, inguru naturalean ahalik eta eragin txikiena sortzeko.

Bestalde, produktu bat egiteko, naturatik lortzen ditugun lehengai eta energiak beharko ditugu. Energia gastua murrizteko politikak aplikatu, ingurugiro kalitate sistemak ezarriz, produkzio prozesu garbiagoak erabiltzea sustatuz, eta dugun teknologia hoberena erabiliz, ingurugiroari dagokionez, zuzenagoak izango diren enpresa batzuk lortuko ditugu, lehiakorragoak izango direnak.

⑧ INGURU NATURALA, PAISAIA, ETA BIODIBERTSITATEA ZAINTEZA

DonostiaK hiri inguru bat edukitzeaz gain, nekazaritza inguru bat ere badu, askotan, hau ez dugu udalerriarekin lotzen, hiritarren dentsitate baxuagoa duelako, lur hau erabiltzeko modugatik, eta hirigunearen kanpoaldean dagoelako. Hiria haztea, eta etxebizitzaren beharrak nekazaritza ingurua desagertzea dakar, hau hiri paisaia bihurtzen baita.

Natura ingurua kanpoaldea eta nekazaritza inguruarekin lotzen dugu, baina, hiri erdian badaude erreka, parke, hondartza, urmael edo lorategiak, hauek giro osasungarriago batekin, eta paisaia polit batekin gozatzen ahalbidetzen digu, gure hirian gaudenean. Horregatik, beharrezkoa da hiriaren aktibo natural hauek sustatu eta zabaltzea, bai eta gure inguruko natura, kultura, eta paisaien baloreak mantentzen hezteka ere.

Puntu honetan azpimarratu egin behar da, Donostiako udalak aurkeztu berri duen Parke eta Lorategien Ekintza Plan Berdea, bertan, espazio berdeekin (parke eta lorategiak) harremana duten zenbait ekintzen plan bat jasotzen da, bai eta gure hiriarentzat, Hiri Antolakuntza Plan Orokorraren arabera hiri kalitate altukoaren helburua lortzeko estrategia ere.

⑧ TURISMOA

Lan mahai honek Donostiako udalerria baitan, jarduera turistikoaren inguruko diagnostikoa eginga dauka, honen alderdi nagusiak jarraian zehaztuko dira.



Turismoa industria bat da eta, industria guztiek legez, eragin onuragarriak eta kaltegarriak izan daitezkeenak sortzen ditu. En cuanto a los eragin kaltegarria dugu kutsadura, giza jarduera orori dagokion kutsadura, bere esanahirik zabalenean hartuta. Garbi dago turismoak mantengarria izan behar duela; hots, giza jardueraren eta horrek bere inguruan sortzen duen eragin ekologiko eta sozialaren artean oreka izan behar dela, ez bakarrik aipatu arloetan etekina lortzen delako, baizik eta kontrolik gabeko turismoak ekar dezakeelako gure udalerria turismoarentzat interesgarria ez izatea.

Turismo mantengarria erdiesteko, beharrezkoa da aldeaz aurretik aztertzea toki zehatz baten errealitatea, eta beharrezkoa da, halaber, bere eragin eta gertakari guztiak ezagutzea, eta, batez ere, neurriak hartzea; neurri zuzentzaileak, jarduera turistikoaren ondorioak kaltegarriak badira, eta neurri zurrak, beste leku batzuetan antzemandako hutsegiteetan ez jausteko eta gertakariari aurrea hartzeko. Gaur egun "turismo mantengarria" esaten zaion horrek interes eta kezka handia sortu du Mediterraneoko arroan. Izan ere, hainbat urtez industria turistikoa intentsiboki ustiztearen ondorioz ingurugiroan eta beste hainbat arlotan izan den degradazioa begi bistakoa da, eta ingurunea eta bizitza kalitateari kalte egiteaz gain, jarduera turistikoa bera jarri du arriskuan.

Gure egoera askoz hobea da, nabarmen. Izan ere, aurretik aipatu dugun bezalaxe, ez da izan ustiapen sakonik eta jarduera turistikoa era onargarrian txertatu da gure hiriaren egitura soziokulturalean, eta, etorkizunean hazteko aukerak dituen, "turismo mantengarria" gisa planifika dezakegu bere garapena.

Zentzu honetan, azaleko lehen azterketa batean esan daiteke gai honi jarduera turistikoak ingurugiroan eragin handiegirik ez duela dirudiela. Hala ere, izakera berezi bat ematen dioten eta gure hiriko turismoaren radiografia betetzen duten beste bi faktore adierazi behar ditugu.

Batetik, oportetako (edo asteburuko) egonaldiak egiteko erabiltzen den bigarren etxebizitza. Merkataritza Ganberak egindako aipatu ikerketaren arabera, bigarren etxebizitzetan 20.868 plaza ziren 1997an, eta horiek 3.191.389 gauraldi dira guztira.

Elkarte ekologista baten aburuz, ikerketan zehazten den bigarren etxebizitzaren kopurua parametro guztiz jasanezina da, ingurumenean eragindako kalteak (hiriaren hazkundera dakar, eta horrek zoru galera etengabea) eta kalte sozioekonomikoak (etxea eskuratzeko 20 eta 40 urte bitarteko lagunek duten zailtasuna) direla eta. Horrezaz gain, hutsik zenbat etxebizitza dauden kontuan hartzen bada, arazoak dimentsio handia hartzen du.

Zalantzak agertzen dira gurea bezalako udalerritan batean ekotasia ezartzeari buruz. Edozein modutan, bigarren etxebizitza zergapetzea, hori hain erraz



ez erosteko, eta asteburuko bisitarien fluxua arintzea irtenbide ona litzateke, behrabada.

Ikuspegi hau osatzen duen beste aldagai bat txangozaletasuna da; eguneko bisitaria. Tamalez, ez daukagu egunero eta urtero gure hirira datozen lagunen kopuru zehatzik; baina, ziurrenik, gaua bertan ematen duten turistek kopurua baino askoz handiagoa da. Aipagarria da Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak 1997an mugaz bi aldeetako txangozaletasunaz egin zuen ikerketak esaten duena: horren arabera, 565.185 lagun igaro ziren gure hiritik, eta horrek garbi erakusten digu gertaera honek gure hiriaren jardura turistikoan duen garrantzia.

Gaueko turismoa ere aipatu behar da, halaber; izan ere, gaua bertan eman eta goizean abiatzen den turistak ere trafikoa eta kutsadura akustikoa eragiten ditu. Arazo honi lotuta, auto pribatu bakoitzeko tasa bat ezartzea proposatzen da. John Major-rek eraman du aurrera neurri hau Londres hirigunean autoak masiboki sar ez daitezen.

Gauzak horrela, eta aurretik emandako datuei helduz, Turismoko ikuspuntutik Donostian zein arazo nagusi dauden sumatzen has gaitzke. Izan ere, beste norako turistiko batzuetan gerta daitekeenaren kontra, industria turistikoak ez du sortu hiriaren azalean aparteko garrantzia duen eragin urbanistikorik, antolaketari dagokionez (hotel-hedadura handiak, etab.). Hotel-establezimenduen berezko historia eta izaera direnak direlako, batetik, eta azken urteotan Udalak zein beste erakunde batzuek arlo urbanistikoan arautegi zorrotzak jarri dituztelako indarrean, bestetik, hiriaren egitura errespetatu egin da, bai establezimendu berriak eraikitzean bai erabilera turistikorako eraikinak birgaitzean.

Era honetara, turismo mantengarriari dagokionez, hiru arazo nagusiri egin beharko diegu aurre, nahiz eta garrantzi gutxiagoko beste arazorik ere badela aitortu. Hauek dira hiru arazo nagusiak:

- trafikoa eta mugikortasuna
- kutsadura akustikoa (bereziki gauekoa)
- gizalegezkoak ez diren jokaeren ugaritzea (hondakinak isurtzea hotel eta zerbitzu aktibitate handiko lekuetan).

➤ **Trafikoa eta mugikortasuna**

Zalantzarik ez dago: trafikoa eta hiriko mugikortasuna dira hirietako arazo nagusiak. Eta gure hirian, fluxu turistikoa ez da uniformea urte guztian zehar; kontrara, urtaroen arabera da, udako hilabeteetakoa batez ere. Eta, hargatik, turismoaren eragina nabaria da, bere arlo guztietan. Egindako ikerketen arabera, bisitarien eta eskurtsionisten %80 baino gehiago beren autoan joan ohi dira hirira, eta txangozaleen



%15 baino gehiago autobusean. Eta gauza jakina da zein zaila gertatzen den auto horiek hirigunean aparkatzea.

Guztiok dugu gogoan iazko udako hilabeteetan gertatu zena: auto-ilarak hirigunean, hirian mugitzeko zailtasuna, aparkatzeko ezintasuna, etb. Eta hori dugu turismo mantengarri kontzeptuaren adibiderik onena; izan ere, bisitaria gogo onez jasotzen duen hiria da gurea, baina egoera gatazkatsuaren ardura turismoari leporatu zioten ahotsak entzun ziren lehenengoz.

Turistak bere autoan gerturatu nahi du hiriaren erdialdera, baina auto norakoa baztertzea dakar. Datu adierazgarria da honakoa: 1etik 100erako eskalan, bisitariaren asebetetze maila 87koa da gastronomian, jendearen adeitasunari 86 puntu ematen diote, ostatuari 80, eta hondartzei 76 inguru, baina autoen sarbideari 51 eta 48 arteko nota ematen diote eguneko bisitariak (horiek oso epe laburrean pairatzen dute trafikoaren arazoa). Inkestan datozen 30 aldagaien artean, trafikoak jasotzen du notarik baxuena. Esperientzia, bere osoan hartuta, 86 zenbakiarekin baloratzen dute.

Arazoak ez du irtenbide errazik eta trafiko arduradunak jakitun dira. Hausnarketa horren emaitza da Udal instantzietatik planteatzen duten eta aldian behin egunkarietan oihartzuna lortzen duen mugikortasun politika; adibidez, igandeetan Kontxa trafikoari moztea, bidegorriak sortzea, etab. Hauxe dugu eztabaidagai nagusia lan mahaian ere, eta berehala hasi nahi lukete hiriko sarrera-irteeretan bisitarien autoen fluxua kuantifikatzen eta horien mugikortasuna aztertzen, hiriko bide sarearen konfigurazioan duen eragina zein den antzeman eta baleko irtenbideak bilatzeko.

Errealitatea aztertzeko lehen urrats honekin batera hainbat neurri hartzea proposatzen da: zerbitzu publikoen sarbidea eta erabilera erraztea (bonobusaren gaia), disuasio-parkinak, etab., aipatutako bi aldagaiak uztartuta.

➤ **Kutsadura akustikoa (bereziki gauekoa)**

Ostalaritza establezimenduen saturazioak sortzen duen kutsadura akustikoa (nolabait deitzeko) da bigarren puntu garrantzitsua. Donostian, iaz, 309 jatetxe eta 951 taberna ziren, horietako asko toki jakinetan multzokatuak; adibidez, Alde Zaharrean, San Bartolomen, eta abarretan. Bi aurpegi dituen arazo baten aurrean aurkitzen gara berriro ere. Zerbitzuen kontzentrazioa eta zerbitzuen kalitateak bihurtzen dute eskaintza erakargarri, oso erakargarria; baina, ostalaritza establezimenduen saturazioak arazoak dakartza inguruko bizilagunentzat (gaueko zarata, hondakin pilaketa, etb.), hiriko hainbat alderditako bizilagunen protestaldiek agerian jarri dutenez.



Zentzu honetan, aisia jarduera horiek komunitatean izan dezaketen eragina leuntze aldera Udaleko instantzietatik martxan jarri nahi diren neurriak azpimarratu behar dira. Baina ez legoke gaizki neurriak martxan jartzeko garaian kontuan hartu behar diren gaien gainean hausnartzea. Guri dagokigunez, uztartu egin beharko ditugu erakargarritasun turistikoa eta horrek ingurumenean sortzen duen eragina, turismo mantengarriaren oreka erdiesteko.

➤ **Gizalegezkoak ez diren jokaeren ugaritzea**

Lehenik eta behin, aipagarria da ostalari elkarteak erakutsi duen interesa beren arloan ingurumena hobetzeko zuzendu diren jardueren garapenarekiko.

Azken urteotan gehitu egin da sektore honen kontzientziazte ekologikoa, eta, hala, geroz eta gutxiago dira beren hondakinak ezarritako ordutegitik kanpo kaleratzen dituztenak edota ezarritako edukiontzietatik kanpo uzten dituztenak. Gainera, sektore honetatik datozen kartoi eta beiraren birziklapen tasa handiagoa da eta uraren eta energiaren kontsumoan aurrezteko borondatea dutela antzematen zaie.

Sektorearen sentsibilitateari dagokionez, datuak ez datoz bat bizilagunen iritziekin Litekeena da kontzientziazte ekologikoa gutxinaka-gutxinaka aurreratzea, baina bide onetik goaz.

⑧ **KONTSUMOA**

Produktuen kontsumoa epe labur zein luzean, ontzi, paketatze, janari soberakin edo erabilitako autoak bezalako kudeatu beharreko hondakinak ekoizten dituen jarduera da. Gure hiriarekin errespetu handiagoa izan nahi badugu, gure kontsumo ereduak eragiten dituzten ingurumen aldaketak kontutan hartu behar ditugu. Estatu Eskandinaviarretan, kontsumitzaileen erdiak gutxi gorabehera, kontsumo eredu bat jarraitzerakoan faktore ekologikoak kontutan hartzen dituztela aipatu behar dugu. Beraz, esaterako, "erabili eta bota" bezala ezagutzen diren produktuak murrizketa, berrerabilpen eta birziklatzearen politikaren kontrakoak direla esan behar da. Aldiz, gauzak konpondu edo bigarren eskukoak erostea, eta erosketak "ekologikoa" egitea onuragarria da ingurugiroarentzat.

⑧ **HIRITARRARENTZAT INGURUGIROARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Donostiako Lekuko Agenda 21aren funtsezko elementu bat hiritarrari gai honi buruzko informazio osoa eskaintzea da. Gainera, gure herriari buruzko ingurugiro alderdian heziketak berebiziko rola jokatzen du hiritarren formazio eta sentsibilizazioan. Testuinguru honetan, kanpaina, kongresu, hitzaldi eta beste hainbat ekimenek rol garrantzitsua jokatzen dute eta hauen artean administrazioak ingurumenari buruz duen informazioa, guztiei



helaraztea eta zabaltzea dugu. Lan mahai honek ere, dagokion diagnostikoa egiten aurrerapauso handiak eman ditu. Hauetako batzuk, ondoren aipatuko ditugu, hainbat sail edo Udalek negoziatutakoak kontutan hartuz.

✿ **Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Tolerantzia**

Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Tolerantzia Sailak honako hau defendatzen du, topikoa dirudien arren, pertsonarik gabe ez dagoela jasangarritasunik. Jasangarritasuna, kontzeptu eta errealitate anitza da eta faktore ekonomiko, giza, kultur, hirigintza, ingurumen eta beste hainbat faktore ditu bere baitan. Gainera, Sail honetan, zeharkako ekintzetarako egoera aproposa bermatzen duten (zuzentzen den gizarte segmentua, eskaintzen dituen zerbitzuak eta maneiatzen dituen kontzeptuak) eta sinergiarentzat ere lekua uzten duten hainbat egoera topatzen dira (lau azpisail –hezkuntza, haurtzaro-gazteria, elkarlana, tolerantzia- giza eskubideak-). Aurrekari hauek kontutan hartuz, Jasangarritasuna duen Hiri baten bultzadak Korporazioaren babesa izan behar duela azpimarratu behar da, ez Gobernu Komisio baten baieztekoaren bitartekaritzaren bidez bakarrik, antolakuntza mekanismoak eta programaren hasieratik errekurtsoen martxa jartzearekin baizik.

“Donostia, Hiri hezitzailea” proiektuarekin hartutako konpromisoa, gure hiria familia eta eskolarekin batera, hezkuntza egitura osatzen duen formazio tresna bezala duen rol aktiboa gauzatzea ahalbidetuko duten programa guztiak bultzatzeko apustu indartsua da. Beraz, hiri-ingurunea eta bertako biztanleak, hauek formazio prozesutik kanpo gelditu gabe, eskolaren luzapena eta formazio programa zehatzetan osagarri garrantzitsua izan daitezen, hiria hezkuntza proiektu batean inplikatu behar da. Honi dagokionez, eskolari, udalean dauden formazio baliabideak eskaini behar dizkio.

Informazio laburpen honetan, Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Tolerantzia azpisailetan egindako lana aztertuko dugu:

- **Gazteria:** Haur Txokoetatik, haurra, errespetua, komunikazioa, sortzailetasuna eta arduraren zentzuaren ikuspegitik, bere burua ezagutu eta bere ingurua eta giza taldearen errealitateak interpretatzen joan dadin lehen pausoak ematen dira. Hurrengo urteetan, koordenada hauetan suposatzen den hazkunde pertsonalarekin, gazteek gizartean jokatzeko duten rola eta etorkizunean ondasunak eta sostengarritasunez eraikitako Hiri nahiko gizalegezkoa jasoko dutenaren kontzientzia orokorra dute.
- **Hezkuntza:** Hezkuntza sailetik, eskoletan daudenak gure gertueneko ingurumenak duen garrantziaz sentsibilizatzen dituzten



jokoak bultzatzen dira bereziki, errespetu handiagoko jokaera eta baliabideen erabilera eta hauek mantentzeak duen garrantziaz kontzientziatzeko helburuarekin. Beraz, adibidez, diru laguntzen bidez, Ikastetxeak Eko-auditoriatan parte hartzera bultzatu dira; eta "Tailer didaktikoa. Ingurumena eta Donostiako ingurune naturalak" garatzen ari dira, Donostiako hiritarren kultur formazioa eta gizalegezko formazioa aberasteko helburuz. Tailer honek ingurumen Heziketan material didaktiko eta pedagogikoa bihurtzeko asmoa dauka. Donostiako hiriko ingurune naturalaren ezagutza sustatzeaz gain, batez ere haurren eta gazteen kontzientzietan, naturari zor zaion errespetuari dagokionez, atzerabiderik gabeak bihur daitezkeen ondorio negatiboak ekiditeko lan egiten den tailer bat, alegia.

- *Garapenean lankidetzeta eta giza eskubideak:* lankidetzeta, garapena eta eskubide kontzeptuak, berez, nahikoak dira gure ekintzek gordetzen dituzten nahiak argi asko agertzeko. Justizia, elkarbizitza, pertsona eta herriren duintasuna, naturaren eta komunitatearen ondasunak, nortasuna eskubidea, bizitza duina eta beste hainbat helburu bilatu eta sustatzen dituzten baloreak dira. Jasangarritasun, agortze-ezaren ikuspuntutik, partehartzearen eta baliabideen indartzearen printzipiorik gabe, ez da herrien garapenaren laguntzarako elkarlana ulertzen.

* **Emakume saila**

Emakume saila, hasieratik, berezko, nahiz beste Sailekin elkarlanean, emakume eta gizonen arteko aukera eta tratua berdintasunaren alde ari da lanean. Hirigintza Plangintzari dagokionez, Emakume Sailak honako planteamendu hau egiten du: "Hirigintza planifikazioa eta generoa" delakoari buruz hausnarketa bat egitea planteatzen du, hiriak gizonak lan egiten duela eta emakumea etxean gelditzearen hipotesiaren gainean eraiki baita. Honek, emakumeak hirien garapen eta hazkundetik kanpo uztea ekarri du.

Testuinguru honetan, "emakumeak eta hiria" deitutako lan taldea sortu da. Donostiako Udaleko Emakumearen Departamentuak koordinatutako programa bat da, era berean, Maria Aurelia Capmay Fundazioak koordinatutako izen bereko proiektu baten emaitza ere bada, hau, Europar Komisioak, gizon eta emakumeen aukera berdintasunerako aukera berdintasunaren epe ertainerako IV Europar Planean sartu zen 1996ko irailean, eta 1998ko irailean bukatu zen.

Programa honen helburua, gizonezkoen bezala katalogatutako gaietan emakumeen partehartzea erraztea da, bai eta kompetentzia duten



organoei, hirigintza planen inguruko hobekuntza proposamen, eta hauen mantentze harremanaren inguruko proposamenak iritsi araztea da. Programaren sustatzaile eta koordinatzaile gisa Emakumearen Departamentuak parte hartzen du, bai eta Udaleko alor desberdinetako teknikari, auzo elkarte desberdin, emakume elkarte, eta partidu politikoetako kideak ere; bai eta beste emakume zenbait bere.

Egun, lan talde bat dago martxan, eta bertan gai orokorrak lantzen dira, alegia, Donostiako hiritar guztiak inplikatzeko dituztenak (garraio publiko, Egiako pasabide, etxebizitzak, zerbitzu komunitarioak). Taldea zabala da, horrek esan nahi du, emakumeak bertan sartzen joan daitezkeela.

Normalean hilean behin biltzen dira, orduan lantzeko gaia erabakitzen da, aukeratutako gaiaren edo gaien inguruko informazioa jaso, gaiaren inguruko eztabaida egin, eta azkenean, talde desberdinetatik proposatzen diren hobekuntzak dagokion instantziara edo instantziatara iritsi arazten dira.

✿ **Hiritarren partehartzea**

Auzo Negoziatu, eta Hiritarren Partehartzeak bultzatutako jardueren baitan, hurrei hiria gerturatu, eta bizitza publikoan duten partehartzea sustatu asmoz, egun, proiektu konkretuak lantzen ari dira: Araba parkearen hobetzea, eta txakurren gorutzak.

Parkeen egoera, eta bereziki haur jolas guneak, eta txakurren gorutzak, pasa den urteko HIRIA eta haurrak galdetegian haurrek berek aipatutako gaien artean errepikatu egiten ziren. Momentu honetan, haur taldeekin bi gaiak jorratzea proposatzen da, baina, lankidetzan, haurrak heldu, gazte, zahar eta abarrekin erlazioatuko diren guneetan. Bi kasuetan, abiapuntua, egoeraren diagnostikoa izango da, eta lan fase guztietan, diziplina anitzeko lankidetzak izatea saiatuko da, proiektuetan parte hartzen ari direnak babesteko.

Hiria hurrei gerturatzeko proiektu gisa hasi zena, haurrek hiritar gisa beren ideia eta proposamenak adierazi ahal izateko espazio eta aukerak sortzen joateko lan ildo bihurtu da, hauek Udaleko planetan pisu erreala izan dezaten. Mantenu eta Hiri Zerbitzu, Hirigintza, edo Mugikortasuna bezalako departamentuak, haurrek jarduera proposamen konkretuekin parte hartzen duteneko proiektuak garatu eta egitean inplikatzeko lortzen ari da. Orain arte egindako lanekiko borondate politiko eta adierazitako ardura teknikoak, zein gurasoen eta hezitzaileen eta komunikabideen eraginak adierazten dute, bide honetatik jarraitzeko momentu bikaina bizi dugula.



Donostian garatzen ari diren hiritar partehartzea sustatzearen inguruan, azpimarratu behar da:

- Urumea Gurea proiektuak: " Urumeako bazterbideak" Gidaren edizioa, Ibai Parke proiektua, 112 kanpaina (ibaiertz zein uretan edozein ekintza arriskutsu edo antihigienikoaren salaketa), ibaiaren inguruko informazioa duen CD Roma, Urumea txalupaz.
- Haginen Ingurugiro Alerta Sarea sortzea.
- Aquariumak sustatutako ekintzak.
- Izartu (Altza) hirigintza suspertzeko programa integrala: Auzo guztian sustatu nahi den Altzako komunitate guztian partehartzea sustatzeko programa, proiektuan modu koordinatu, integratu eta partehartzailean sartutako fronte guztiak lantzea, lurraldearen aldaketa prozesuan komunitatearen benetako protagonismoa ahalbidetuko duten prozesu eta jarduerak garatzea. Planak Altza auzoaren etorkizuna hobetu nahi du bizitza baldintza guztiei dagokienez, komunitateko egungo aktore eta aktore potentzialei dagokienez (auzokide, administrazio, profesional, elkarte...), proiektu kolektibo eta komunitate garapenetik abiatutako arazoak identifikatu eta konpontzerakoan.

✿ **Ingurugiro Negoziatua**

Lantzen ari garen gaiaren inguruko Negoziatuaren helburu nagusiak partehartze aktiboa sustatu, eta ingurugiroranzko ikasleen jarreratan aldaketa bat lortzea da.

Helburu konkretu gisa, zentroetan ekoauditoreak egitearen bidez (bertan ikasleek parte hartu ahal izango dute, bai diagnostiko, jarraipen, eta neurri praktikoak hartzerakoan, aurkitutako hutsuneak hobetzeko) ikastetxeetan ekologia sustatzea, nekazaritza zein hiri alorrean, eguneko jarrerak aldatu eta partehartzea sustatzeko gertuko ingurua ezagutzea, eta inguru kontzientzia garatu, eta gure udalerriko hondartzak erabiltzerakoan jarrera aldaketa sustatzea dira.

Lehen aipatutako helburuak lortzeko honoko jarduerak proposatzen dira:

- **EKOLOGIA ESKOLARA** kanpaina: Kanpaina hau Hezkuntza Negoziatuarekin elkarlanean egiten da. Bertan, ikastetxeen ingurugiro erabilera alorrak eta eraginak aurkitu, eta hauen hobekuntza jarduerak sustatu nahi dira, ikastetxearen kudeaketa hobea lortu, eta ingurugiro errespetu jarrera garatu, eta baliabideen erabilera arduratsu eta mantentzeko ohitura jarrerak garatuz. Horretarako, urte osoko kanpainak egin dira, 98-99 ikasturtean, 8 ikastetxek hartu dute parte, eta 99-2000 ikastetxean, 11 ikastetxe ari dira parte hartzen.



PLAN ESTRATEGIKOA

Donostia-San Sebastián

- Zuhaitz-Festa: jarduera hau, ez da ekintza puntual gisa planteatzen, baizik eta ikasturtean zehar garatzeko jarduera gisa, hau zuhaitz egunarekin bukatuko da, eta bertan ikasle eta helduek parte hartuko dute. Zuhaitz egun hauek udalerriko Auzoetan egin dira (Loiola, Egia eta Igeldo).
- HONDARTZA kanpaina: Ikasleak hondartzen inguruan sentsibilizatzea planteatzen da, gure Ingurugiro gertuko zati gisa, honekiko jarrera errespetuzkoagoa lortzeko, eta erabiltzailea bainu ura, zein hondar, eta hondartzaren inguru guztiaren errespetuzko jarrera lortzeko.
- Agenda 21 Kanpaina: Tokiko Agenda 21 prozesuaren baitan, hau osatzeko faktore erabakigarrien baitan, hiritarrengan, garapen jasangarriaren kontzeptuaren hezkuntza sustatzea dago. Horretarako, garapen jasangarri, eta Agenda 21 itxuran praktikan jartzera bideratutako material didaktiko zenbait egingo dira. Material hauen helburua, gure Udalerriaren egoera, garapen jasangarriaren ildoak markatutakoaren arabeko inguruaren egoera aztertzea izango dute helburu, gure eguneroko eginbeharretan jarrera "jasangarriak" sustatzea, eta tokiko ingurugiro arazo, eta ingurugiro arazo orokorren arteko elkarrekintza ulertzea.

⑧ **PLANEAMENDUA**

Hirigintza planeamendua da, hiri bat garatzerakoan etorkizunean garrantzia handiena duen gaietako bat, honen espazio eta funtzio osaketa guztia zehazten baitu, eta beharrezko bihurtzen du gai honetan, gure inguruan sortzen diren edo sor daitezkeen jarduera desberdinen ingurugiro eraginak.

⑧ **INGURUGIRO OSASUNA**

Elikagaien higie-ne-osasun kontrolen udal jarduerak, eta ostalaritza establezimenduek berebiziko garrantzia dute, hiritarrak izurrite eta toxikazioen kontra babesteko. Jarduera hauek, erakunde autonomiko eta estatu erakundeekin koordinatzen dira, osasun publikoaren eraginkortasun handiagoa lortzeko. Gainera, etxe-abereen errolda, eta desinfekzio, desintsektazio, eta arratoi-hiltze jarduerak garrantzia berezia dute udalerriko ingurugiro osasuna kontrolatzerakoan.



17. EUSKERA



17. EUSKERA

Donostiako Euskara Normalizatzeko Plan orokorraren diagnostikoaren arabera, donostiar biztanleen %27k (4 urtetik gorakoak) bere burua euskal hiztuntzat du, %26k erdi euskal hiztuntzat, eta beste %47k gaztelera hiztuntzat.

Desberdintasun nabarmena dago euskal hiztunen portzentajearen, adin tarte desberdinak aztertzen badira. 20 urtetik beherakoen artean, euskal hiztun eta ia euskal hiztunen portzentaia %78koa da, %50era jaisten da, aldiz, 20 eta 54 urte bitarteko taldean, eta %41era, adin altuagoetan.

Gainera, desberdintasun nabarmenak dauden hiriko auzoen artean, Zubieta eta Igeldon daude euskal hiztun gehien, eta Altzan eta Bidebietan kontrakoa.

17.1. Koadroa Euskeraren egoera Donostian

	(%) Euskal hiztunak	erdi euskal hiztunak	Gaztelania hiztunak
5 - 19 urte bitarte	41,0	36,6	22,4
20 - 54 urte bitarte	22,1	27,7	50,2
54 urte baino gehiago	26,9	14,4	58,7
GUZTIRA	27,3	25,8	46,8

Iturria: Euskararen Donostia Patronatua, Euskara Normalizatzeko Plan Orokorra (Eustaten datuak, 1996).

Lehen aipatutako Normalizazio planak, euskararen hizkuntza normalizazioan egindako esfortzuak azpimarratu ditu, bai donostiarren aldetik, bai udala zein gizarte mugimenduen aldetik ere, baina azpimarratu behar da, hala re, ez dagoela bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasunik, eta hizkuntza normalizazioa bultzatzeko beharra dagoela.

Planak, hizkuntzaren normalizazioa, hirian eragina duten ekonomia, politika eta gizarte aldaketa handiekin harremanetan jarri nahi du, bai eta, hizkuntza normalizazio prozesuan erakunde jarduera eta gizarte guztiaren partehartzea bultzatu ere; alegia, euskararen erabilera normaliza dadin tresna bat izatea. Zentzu honetan, hiriaren Plan estrategikoan planteatzeko erreferentzia marko bat da.

Sarrera gisa, normalizazio Planak honoko helburu orokorra planteatzen du:



Elebitasun erreala lortzeak, Donostian, euskara guztiz berreskuratzea suposatu behar du, udal kompetentzian, eta euskararen normalizazio prozesuan parte hartzen duten beste erakundeekin lankidetzan eta koordinazioan, batez ere Hizkuntza Politikarako Sailordearekin.

Helburu orokor hau hiru atal osagarritan egituratzen da:

- 1.- Donostiarren euskalduntzea sustatzea, alegia, alde batetik belaunaldi berrien euskalduntze praktikoa lortzea, eta euskal kulturaren sartzea, eta bestetik, euskaraz hitz egiten duten pertsona helduen kopurua handitzea, eta beren kompetentzia linguistikoa hobetzea.
- 2.- Euskal Herriko berezko hizkuntza Donostiako Erakunde publikoek normalean erabil dezaten lortzea, erabilera publiko guztietan, eta jardura guztia mendekotasun egoeran ez egitea.
- 3.- Donostiar bakoitzaren hizkuntza eskubideak guztiz errespetatu daitezkeen lortzea, jardura publiko, profesional, kultur, gizarte edo aisia jarduerari dagokienez, botere publikoek donostiarren eskubide hauek praktikan jartzea babesten dutela jakinda.

Planak zortzi jardura sektore ditu:

- * Familia harremanak
- * Hezkuntza, Ikerketa eta Gazteria
- * Erakunde Publikoak
- * Komunikabide eta Kultur Jardura
- * Alor sozio-ekonomikoa
- * Teknologia eta Telematika
- * Gizarte Erakunde, Elkarte eta Hiritar Erakundeak
- * Euskara Batuaren zabalkundea eta Azterketa Soziolinguistikoak

hauentzat helburu estrategiko ugari definitzen dira, bai eta jardura eta ekintza arauak ere, aplikatzeko 10 urteko epearekin.



18. KIROLA



18. KIROLA

Kirola egitea oso zabaldua dago Donostiako biztanleen artean. Horren adierazgarri da kirol patronatuak banatzen duen kirol-txartela: 38000 harpidedun ditu eta 3 milioi erabilera inguru eskaintzen ditu.

Auzokako kirol-ekipamendu hornidura osoa eta askotarikoa dela esan genezake, eta kalitate handikoa orokorrean, azken urteotan asko hobetu baita; hala, zenbait aldaketa egiteko asmotan dira, egun.

Horrez gain, hiriak ingurune paregabea du kirola bere osoan egiteko (ekipamendu eta instalazioez gain, hiriak berak aukera ematen du senderismorako eta aisiarako, itsasoarekin eta ibaiarekin lotutako kirolekin aritzeko; horrez gain, bidegorriak, kirol terapeutiko eta osasunari dagokiona...) Alegia, hiria bera aisia aktiborako nahiz kirolerako erabiltzeko.

Era berean, kirol profesional jarduera handia eta askotarikoa da; eta hori kirol ez-profesionalari, aisiarako kirolari eta osasunerako kirolari eransten badiogu, kirolerako ohitura garrantzitsua dagoela esan genezake.

Ezagun da jarduera hauek biztanleen bizi-kalitatean eta ongizatean duten eragina; kirol erabiltzaileen kopurua altua gero eta altuagoa izatea da horren lekuko. Halaber, jardueraren eragin ekonomikoa nabarmena da zenbait ezaugarri kontuan hartzen baditugu, hala nola: kirol materiala, instalazioen erabileragatiko kuotak eta gastuak, ikuskizunetarako sarrerak, joan-etorrietako gastuak eta ikuskizunekin eta hiri barneko kontsumoarekin lotura duten gastuak.

Bestalde, aipa daiteke kirolaren eragin ekonomikoa (bere zeharkakotasunetik) nabarmentzen dela sektorekako jarduerari lotzen bagagozkio, alegia:

- Azpiegitura eta kirol guneen eskaintza: ohiko guneak (kiroldegietako pistak, teniskoak, frontoiak, igerilekuak, futbol zelaiak, saskibaloia pistak, frontoiak...) eta gune bereziak (zirkuituak, golf zelaiak,...)
- Kirol zerbitzuen eta ondasunen ekoizpena. Jarduera-talde garrantzitsuenak barne hartzen dituenak: kirolerako materiala fabrikatzea, kirolerako materiala merkaturatzea, kirol jarduerak eta kirolarekin lotutako jarduerak kudeatzea.
- Biztanleek kirol zerbitzu eta ondasunak kontsumitzea. Alegia, ondasun aldetik, kirolerako jantziak eta oinetakoak, ekipamendua (kirolerako gai ezberdinak, bizikletak, itsasontziak...) eta eskuratutako zerbitzuak (kirola egiteagatiko ordainketak, kirolarekin lotutako jarduerengatiko ordainketak, kirol ikuskizunak,...)
- Kirol jardueren kudeatzea (ez profesionala): entitateak, elkarteak, erakundeak etab., bai sektore publikokoaren aldetik bai pribatuaren aldetik.
- Kirol jarduera profesionalaren kudeatzea: elkarteak, txapelketak, zirkuituak...
- Kirol jardueraren zabaltzea: babestea, komunikabideak, argitalpenak, multimedia edukiak,...



PLAN ESTRATEGIKOA

Donostia-San Sebastián

Donostiaren kasuan, kirolaren garapenerako leku aproposa bihurtzen da hainbat arrazoiengatik, hala nola: kirolerako ohitura handia, kirola egitearen hedadura, ekipamendu hornidura anitza eta kalitatezkoa, antolamendurako gaitasuna eta hiriak eta Gipuzkoako lurraldeak eskaintzen dituen baldintzak. Aurrez aipatutako arrazoi hauei beste alderdi batzuk ere erantsi dakizkieke, esate baterako: ikerketak, enpresa berriak, prestakuntza, talde espezifikoen zako kirol jarduerak, ikuskizunen eta batzarren antolamendua...)

Bukatzeko, Gipuzkoan kirolak duen garrantziaren isla diren zenbait adierazle aipa daitezke.

Gipuzkoako kirol federazioetako lizentzia kopurua ia 74.000ra iristen da 2000. urtean, eta lizentzia gehienak senior mailakoak dira.



PLAN ESTRATEGIKOA
Donostia-San Sebastián

18.1. Koadroa

Gipuzkoa. Kirol Federazioen Lizentziak

mailak	Lizentzien zenbatekoa
kadeteak	7.268
Gazteak	6.077
Juniorrak	1.866
Seniorrak	44.637
Teknikariak	1.775
Epaileak	1.356
Besteak*	10.726
GUZTIRA	73.715

* *Jolas Kirola* barne

Iturria: Kirol Federazioetatik jasoa (2000ko datuak).

Lizentzia gehien dituen federazioa ehizakoa (13.364), honen atzetik daude: mendikoa (10.364), futbolekoa (9.060), areto-futbolekoa (7508) eta txirrindularitzakoa (3.597).

Era berean, kirol estatistikek (EUSTAT, 2001eko abendua, 1998ko datuak) Gipuzkoako kirolari buruzko informazio zabala eskaintzen dute. Informazio horretatik zenbait datu aipagarri atera daitezke:

Kirol instalazioen kopurua 161ekoa da; federazio eta kirol elkarteena, berriz, 85ekoa da. Arlo horretan lanean ari direnak 1.500 lagun inguru dira (%58 boluntario izanik). Sektorearen gastu osoa 70.000 euro ingurukoa da.

18.2. Koadroa.

Kirolaren estatistika Gipuzkoan. Datu garrantzitsuenak.

	KIROL INSTALAZIOAK	FEDERAZIOAK ETA KIROL ELKARTEAK	GUZTIRA
Zenbatekoa.....	161	85	246
Gastu osoa (milaka euro)	26.750	43.969	70.718
.....			
Langileak.....	279	350	629
Langile boluntarioak	29	829	858
Gastu osoaren finantzamendu publikoa (%)	33	7	17
Gastu osoaren salmentakako finantzamendua (%)	45	70	61



19. LABURPENA ETA ONDORIOAK



19- LABURPENA ETA ONDORIOAK

19.1.BIZITZA KALITATEAREN ADIERAZLEAK

19.1.1.Espacio urbano

Cities Proiektuaren inguruan, hiri lekuari dagozkion adierazleen egoeraren abantaila. Aipatzekoak dira hiriaren itxura ederra eta ezaugarri naturalen presentzia.

- ❑ 1000 biztanleko internetera konektatzen direnen zenbakidun ahalmena

19.1.2.Garraioa eta etxebizitza

- ❑ Hiri garraioari dagokionez, hain positiboa ez den balorazioa, nahiz eta nahikoa kontsideratzen den. Autobusen zerbitzua da ezaugarri aipagarriena.
- ❑ Etxebizitza batetara sartu ahal izateko ahalmena zailagoa da konparatiboki eta jabeen proportzioa beheraka doa.

19.1.3.Ekipamenduak

- ❑ 3 euskal hiriburuetatik, 1000 biztanletik ikasle gehien dituen hiriburua da Donostia, unibersitatearen garrantzia handia delarik
- ❑ Ekipamendu kulturalen itxura ona eta hauetatik, museoak dira hobetu beharrekoak
- ❑ Ekipamendu komertzial ona; jatetxeak dira itxura edo prestigio gehien duten ekipamenduak.

19.1.4.Jarduera ekonomiko eta enpleguari dagokion ekipamendua

- ❑ Tradizionalki turismoarekin erlazionaturiko hiri bezela, konparatiboki egoera hobea hotel ahalmenari eta 5 izarretako hotelei dagokienez.
- ❑ Lurraren garestitasunak eraikuntza industrialen errenta maila ere igotzen du.

19.1.5.Ingurugiroaren kudeaketa

- ❑ Ingurugiro Baldintza onak, batez ere hiriaren garbitasunari dagokinez.
- ❑ Zabor solido gehien produzitzen duen euskal hiriburua da pertsonako eta urteko.



19.1.6. Gizarte kohesioa

- ❑ Hiriburu segurua, 10.000 pertsonako gertatzen diren delituen ratioari begiratu ezker, baina pluralismo eta tolerantziari buruz eskalaren puntu erditik behera baloratua izan da.
- ❑ Gizarte zibilaren garapen maila ona, dirua ateratzeko intentziorik gabeko antolakuntza edo organizazioen kopurua handitzen delarik.
- ❑ Populazioaren 0,7%-a IMI-aren jasotzailea da. 4 auzo etekindunen erdia baino gehiago dira.
- ❑ Emakumeen gehiengoa udaleko giza zerbitzuen expedienteetan bilakatu diren eskarien artean: 5000 eskarien %68-a. Zerbitzu motari dagokionez, Giza Emergentzien Laguntzak izan dira aipagarrienak: %30-a errepresentatzen dute.

19.2. ETXEBIZITZA

19.2.1. Dauden etxebizitzak eta proiektuan daudenak

- ❑ Konsolidaturiko etxebizitzaren kopurua (2001.eko martxoan) 68.655-era igotzen da. Donostiako etxebizitza hornidura (mila biztanleko dagoen etxebizitza kopurua), Gipuzkoa mailako batezbestekoa baino altuagoa da (baita Donostialdea eskualdearekin alderatuz gero ere).
- ❑ Badira lur urbanizagarri zabalak, etxebizitza kopuru handia egiteko proiektua dutenak. Planteiamendu urbanistikoan (1995-eko PGOU-ren prebisioak 2001-eko martxora eguneratuak) 18.403 etxebizitza eraikitzeke egitasmoa dago (hauetatik %41 babes ofizialekoak dira); honela, % 26,8 igoko da etxebizitzaren kopurua.
- ❑ 1995-2000 bitartean etxebizitza berrien eraikuntzarako eman diren baimen berriak aztertuta, 5.348 etxebizitza berriren egitasmoa dago. Horietatik %37,1 babes publikokoak dira (1.985 etxebizitza) eta %62,9 sustapen librekoak (3.363 etxebizitza). Honela, 2001.eko urtarrilaren 1era arte, egiteke dagoen etxebizitza kopurua 11.280koa da, kopuru osoaren %61,3.
- ❑ Donostiako eraikin-dentsitateari dagokionez, etxebizitzatarako lur hektarea bakoitzeko 72 etxebizitza (eraikitakoak eta eraikitzeke daudenak) daude. dentsitatea EAE mailakoa (60) baino altuagoa dela eta, baita Gipuzkoakoa (70) baino altuagoa ere

19.2.2. Etxebizitza-eskaintzaren egoera: salneurri mailak



- EAEko altuenak dira Donostian etxebizitzaren salneurriak. Donostia, horrenbestez, Euskal Herriko eta beste bi hiriburuetakoa batezbestekoaren gainetik dago alor horretan, estatu mailan ere buru dagoelarik.
- Etxebizitza-merkatuak dituen mugek (prezioa eta eskaintza) erabat baldintzatzen dituzte gazteek hirian jarraitzeko edo bertara etortzeko dituzten aukerak, eta horrek Gipuzkoako hiribuko biztanleen batezbesteko adinaren igoera dakar (adin eta egoera jakin bat duen populazioa da etxebizitza eskuratzeko erraztasun handiagoak dituen). Beharrezkotzat jotzen da, beraz, biztanle gazteei eustea ahalbidetuko duten ekimenak bultzatzea.

19.2.3. Etxebizitza premiak eta eskaria

- Etxebizitza aldatzeko premia eta dauden eskariak uztartuz gero, esan genezake badirela 5.500 familia etxebizitza egoki edo hobeago batera aldatu nahi dutenak, eta horietatik 1.600ek aldaketa hori hurrengo urtean egitea espero dutela. Behar hauek euskal mediatik gora daude eta baita beste bi hiriburuetatik.
- Indize horren arabera, 2001 urtean 7.000tik gora dira Donostian etxebizitza beharra dutenak (%27,5ek etxebizitza hurrengo urtean lortzea espero du). Etxebizitza premia dutenen artean gehienek gurasoen etxetik irten nahi dute, baina ezkontzeko edota bikotekide batekin bizitzeko asmorik gabe. Eskari hau Gipuzkoako eta E.A.E-ko media baino zerbait gorago dago(baita Gasteizkoa baino gorago baina Bilbokoa baino beherago).
- Bestalde, 68000 donostiar etxebizitzek beren etxeak erreformatu edo hobetu nahi dituzte 2001-ean, hauetatik 1500-ek urtebeteko epean hasiko direlarik honetan seguraski.

19.3. UDALEKO LURZORUAREN ERABILERA URBANISTIKOA ETA AURREIKUSITAKO GARAPENA

- Donostiak 61.090.114 m²-ko azalera du guztira; horietatik, %65,4 lurzoru ez urbanizagarriak dira eta gainerako %34,4 (21.042.632 m²) hiri-eremuari dagozkio (suelo urbano más suelo urbanizable). Azken zifra hau %4 (804.967 m²) handitu da 1995ko Plan Orokorraren jasotako zifraren ondoan
- Hiri-eremuaren %57,4 bizitegiei dagokie, %18,4 jarduera ekonomikoari (%9,5 eremu tertziarioari eta %8,9 industri-eremuei), %12,1 bideei, %6,5 hiri-ekipamenduei eta, azkenik, %5,6 bestelako hornidurei.



- Aurreikusitako garapenei kasu eginez, (2001eko martxoa), eta aprobetxamenduari dagokionez, 2.038.769 m² bizitegi eremu daude proiektatuta, hots, finkatutako bizitegien azalera baino %27 gehiago, 580.429 m² industri-eremu daude proiektatuta (jada finkatuta dagoen industri-azalera %154 handitzea dakarrena), eta 470.703 m² eremu tertziario daude proiektatuta (jada finkatuta dagoen azalera tertziarioa %37,5 handitzea dakarrena)
- Planeamenduan oso presente dago artean ere udalaren eskala edo ikuspuntua, eta, zentzu honetan, ikuspuntu metropolitarra hartu eta inguruko udalekin lankidetzan aritzeko premia aipatzen da.

19.4. INGURUMENA ETA JASANGARRITASUNA

19.4.1. Donostiaren eragin ekologikoa

- Edozein populazioren (norbanakoarengandik hasi eta hiri edo herrialde baterainokoa) eragin ekologikoa (edo karga ahalmen egokia) baliabide guztiak ekoizteko okupatuak diren eta aldi berean populazio horrek sortzen dituen hondakin guztiak asimilatzeke ekologikoki produktiboak diren lurra eta itsasoa dira, (laboreak, bazkalekuak, basoak edo uretako ekosistemak). Aipatu biztanleria horrek duen bizitza maila duela eta azalera hori dagoen lekuan dagoela
- Donostiaren eragin ekologikoa biztanleko 3,6 hektareakoa da (2000 urtean). Gure hirriaren eragin ekologikoa Bartzelona edo Helsinki bezalako hirien antzekoa, Torontorena baino dezente txikiagoa eta Txileko Santiagorena baino altuagoa da. Halaber, gure eragina munduko batz bestekoa (2,3) baino altuagoa da eta planetan biztanle bakoitzari dagokion 1,75 hektarea baino dezente altuagoa
- Beraz, egun gure udalaren eskaera eskaintzaren bikoitza da, hau da, dagokigun azaleraren bikoitza ari gara betetzen. Beraz, donostiarrek beren kontsumoa (eragin ekologikoa) %50 murriztu beharko lukete mundu mailako baliabideen banaketa zuzenarekin bat etortzeko.

19.4.2. 21 Agenda Donostian: bertako ekimena jasangarritasunaren alde

- 21 Agenda Donostian ezartzeko eta garatzeko etapak:



- **Filosofia eta udaleko mekanismoen hasiera:** Donostiako udalak 1998ko maiatzaren 23an sinatu duen Aalborgeko eskutitza. Hala, garapen jasangarriaren filosofia bereganatu zuen eta 21 Agenda hirian ezartzeko konpromisoa hartu zuen.
- **Diagnostikoa: arazoak eta kausak identifikatu:** 11 lan-mahai eratu dira hiriaren egungo egoerari buruzko aurretiko diagnostiko bat egiteko. Arazoak eta kausak identifikatuko lirateke aipatu diagnosian, egoeraren ikuspegi orokorra ematea du helburu (gaikako talde ezberdinen diagnostikoak 2002ko erdi alderako eginak egongo direla espero da). Lan-mahai hauek dira: Ura, hondakinak, airea, Energia, Industria, Ingurune naturalaren, paisaiaren eta biodibertsitatearen kontserbazioa, Turismoa, Kontsumoa, Ingurumenari buruzko informazioa hiritarrari, Plangintza, Ingurumenaren osasuna
- **Lehentasuna duten arazoak**
- **Helburu orokorren eta espezifikoen definizioa**
- **Adierazle eta ekintza programen diseinua:** Adierazle eta ekintza programa horiek 2002ko bukaeran prest egongo direla espero dugu.
- **Ekintza programak gauzatzea**
- **Ebaluaketa**

- Txostenean hiriaren gaur egungo egoerari buruzko sarrera motz bat azaltzen da, Agenda21-n planteiaturiko lan eremu desberdinei dagokiena (ura, zaborra e.a.), lan mahai batzuek eginiko diagnostikoen alde nagusiak laburtuz.

19.5 EUSKERA

- Donostiako Euskara Normalizatzeko Plan orokorraren diagnostikoaren arabera, donostiar biztanleen %27k (4 urtetik gorakoak) bere burua euskal hiztuntzat du, %26k erdi euskal hiztuntzat, eta beste %47k gaztelera hiztuntzat.
Desberdintasun nabarmena dago euskal hiztunen portzentajea, adin tarte desberdinak aztertzen badira. 20 urtetik beherakoen artean, euskal hiztun eta ia euskal hiztunen portzentaia %78koa da, %50era jaisten da, aldiz, 20 eta 54 urte bitarteko taldean, eta %41era, adin altuagoetan.
Gainera, desberdintasun nabarmenak dauden hiriko auzoen artean, Zubieta eta Igeldon daude euskal hiztun gehien, eta Altzan eta Bidebietan kontrakoa
- Lehen aipatutako Normalizazio planak, euskararen hizkuntza normalizazioan egindako esfortzuak azpimarratu ditu, bai donostiarren aldetik, bai udala zein gizarte



mugimenduen aldetik ere, baina azpimarratu behar da, hala ere, ez dagoela bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasunik, eta hizkuntza normalizazioa bultzatzeko beharra dagoela.

Planak, hizkuntzaren normalizazioa, hirian eragina duten ekonomia, politika eta gizarte aldaketa handiekin harremanetan jarri nahi du, bai eta, hizkuntza normalizazio prozesuan erakunde jardura eta gizarte guztiaren partehartzea bultzatu ere; alegia, euskararen erabilera normaliza dadin tresna bat izatea. Zentzu honetan, hiriaren Plan estrategikoan planteatzeko erreferentzia marko bat da.

19.6 KIROLA

- Kirola egitea oso zabaldua dago Donostiako biztanleen artean. Horren adierazgarri da kirol patronatuak banatzen duen kirol-txartela: 38000 harpidedun ditu eta 3 milioi erabilera inguru eskaintzen ditu.

Auzokako kirol-ekipamendu hornidura osoa eta askotarikoa dela esan genezake, eta kalitate handikoa orokorrean, azken urteotan asko hobetu baita; hala, zenbait aldaketa egiteko asmotan dira, egun.

- Horrez gain, hiriak ingurune paregabea du kirola bere osoan egiteko (ekipamendu eta instalazioez gain, hiriak berak aukera ematen du senderismoarako eta aisiarako, itsasoarekin eta ibaiarekin lotutako kirolekin aritzeko; horrez gain, bidegorriak, kirol terapeutiko eta osasunari dagokiona...) Alegia, hiria bera aisia aktiborako nahiz kirolerako erabiltzeko.
- Kirolaren garapenerako leku aproposa bihurtzen da hainbat arrazoiengatik, hala nola: kirolerako ohitura handia, kirola egitearen hedadura, ekipamendu hornidura anitza eta kalitatezkoa, antolamendurako gaitasuna eta hiriak eta Gipuzkoako lurraldeak eskaintzen dituen baldintzak. Aurrez aipatutako arrazoi hauei beste alderdi batzuk ere erantsi dakizkieke, esate baterako: ikerketak, enpresa berriak, prestakuntza, talde espezifikoen kirol jarduerak, ikuskizunen eta batzarren antolamendua...)